



1/2024 JARRAIBIDEA, martxoaren 7koa, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza sailburuordearena, honako hauek kudeatzeari buruzkoa:

- AMIANTOAREN ARRISKUPEKO ENPRESEN ERREGISTROA (AAEE)
- AMIANTOA KENTZEKO LAN-PLANAK



AURKIBIDEA

<u>BIBLIOGRAFIA</u>	2
----------------------------------	---

<u>Testuan erabilitako laburdurak</u>	4
--	---

SARRERA:

-Amianto agente kimiko kantzerigenoa gisa	5
-Espainian amianto-zementuek eta fibrozementuek izandako erabilera.....	5
-Amiantoaren balio-bizitza	6

AMIANTOAREN ARRISKUPEKO ENPRESEN ERREGISTROAREN (AAEE) KUDEAKETA:

-Aplikagarria den legedia	8
-Definizioak: enpresa eta instalazio nagusiak	8
-396/2006 EDan jasotako jarduerak edo lanak egin nahi dituzten enpresen betebeharrak	8
-AAEEn inskribatutako enpresen zerrenda argitaratzea	8
-Aurrez AAEEan adierazitako datuetan aldaketak izan direla jakinaraztea	9
-AAEEko inskripzioa berritzeko nahia jakinaraztea	9
-AAEEn baja egitea	10
-AAEEn inskribatutako enpresen zerrenda argitaratzea	10
-LSOINera AAEEen egindako idazpenen kopiak bidaltzea	10

396/2006 ED-ARI LOTURIKO KONTU PRAKTIKOAK:

-396/2006 EDaren helburua	11
-Aplikazio-eremu subjektiboa. Aplikazio-eremu objektiboa	11
-Nork duen lan-plana egiteko ardura	14
-Langileen trebakuntza	16
-Laginak jasotzea	19
-Amianto-zuntzen analisi kuantitatiboan espezializatutako laborategiak	23
-Amianto-zuntzen analisi kualitatiboan espezializatutako laborategiak	24

LAN-PLANEN KUDEAKETA:

-Administrazio-jarduna	26
-Administrazio publikoen arteko datu-trukea	27
-Lan-planen motak	28
-Lan-planen kontrola eta jarraipena	31
-Datuak erregistratzea. Agiriak artxibatzea	35
-Amianto-hondakinak kudeatzea	37

AMIANTO-ZEMENTUZKO ELEMENTUEN BALIO-BIZITZA LUZATZEA:

- Definizioa	42
- Amianto-zementuzko elementuen balio-bizitza luzatzeko debekua	42

BERE KARGURA ENPLEGATURIK EZ DUEN LANGILE AUTONOMOA:

-Aplikagarria den araudia	44
-Bere kargura enplegaturik ez duen langile autonomoaren betebeharrak	45
-Bere kargura enplegaturik ez duen langile autonomoa kontratatzen duen enpresaburuaren betebeharrak	46

-Bere kargura enplegatutik ez duen langile autonomoa kontratatzen duen enpresaburuaren eta langile autonomoaren beraren betebeharrak 46

ERANSKINAK;

-Lan-prozedura segurua ... 48

-Fitxak 52

BIBLIOGRAFIA:

Gaiari loturiko Europako legedia:

-Kontseiluaren 76/769/EEE zuzentaraua, uztailaren 27koa, Zenbait substantzia eta prestakin arriskutsu erabiltzeko eta merkaturatzeko murrizketei buruzkoa.

-Kontseiluaren 83/477/EE zuzentaraua, irailaren 19koa, Lanean amiantoaren eraginpean egotearekin lotutako arriskuetatik langileak babesteari buruzkoa.

-Europako Kontseiluaren eta Parlamentuaren 1999/43 zuzentaraua, maiatzaren 25ekoa, Zenbait substantzia eta prestakin arriskutsu erabiltzeko eta merkaturatzeko murrizketei buruz Kontseiluak emandako 76/769/EEE zuzentaraua hamazazpigarren aldiz aldaraztea xede duena.

-Batzordean 1999/77/EE zuzentaraua, uztailaren 26koa, Zenbait substantzia eta prestakin arriskutsu erabiltzeko eta merkaturatzeko murrizketei buruz Kontseiluak emandako 76/769/EEE zuzentaruaren I. eranskina seigarren aldiz aurrerapen teknikoetara egokitzea xede duena.

-Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/18/EE zuzentaraua, martxoaren 27koa, Langileak lanaldian zehar amiantoaren eraginarekin loturiko arriskuetatik babesteari buruz Kontseiluak emandako 83/477/EEE Zuzentaraua aldaraztea xede duena.

-Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/2688 (EU) zuzentaraua, azaroaren 22koa, Langileak lantokian amiantoaren eraginpean egoteari loturiko arriskuetatik babesteari buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2009/148/EE zuzentaraua aldaraztea xede duena.

-Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006/EE erregelamendua, abenduaren 18koa, Substantzia eta prestakin kimikoak erregistratzea, ebaluatzea, baimentzea eta mugatzeari buruzkoa (REACH). Erregelamendu horren bidez, Substantzia eta Prestakin Kimikoen Europako Agentzia ere sortu zen, eta 1999/45/EE zuzentaraua aldarazteaz gain, Kontseiluaren 793/93/EEE erregelamendua, Batzordearen 1488/94/EE erregelamendua, Kontseiluaren 76/769/EEE zuzentaraua eta Batzordearen 91/155/EEE, 93/67/EEE, 93/105/EE eta 2000/21/EE zuzentaruak baliogabetu ziren.

-Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1272/2008/EE Erregelamendua, abenduaren 16koa, Substantzia eta nahasketa kimikoen sailkatze, etiketatze eta ontziratzeari buruzkoak xedatzen dituena, eta 67/548/EEE eta 1999/45/EE zuzentaruak baliogabetzea eta 1907/2006/EE erregelamendua aldaraztea xede dituena.

-Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/148/EE zuzentaraua, azaroaren 30ekoa, Langileak lantokian amiantoaren eraginpean egoteari loturiko arriskuetatik babesteari buruzkoa.

-Europako Parlamentuaren 2013ko ebazpena, martxoaren 14koa, Lantokian amiantoaren eraginpean egoteak osasunerako dituen arriskuei eta dagoen amianto guztia deuseztatzeko asmoei buruzkoa.

-Batzordearen 2014/955/EB erabakia, abenduaren 18koa, Hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE erabakia aldaraztea xede duena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE zuzentarauak dioenarekin bat etorritz.

-Ekonomia eta Gizarte kontseiluak "EBtik amiantoa desagertarazteari" buruz emandako txostena (2015/C – 251/3).

Gaiari loturiko estatu-mailako legedia:

-31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.

-45/1999 Legea, Nazioz gairikoa zerbitzuak direla-eta langileak lekualdatzeari buruzkoa.

-32/2006 Legea, urriaren 18koa, Eraikuntzaren sektoreko azpikontratazioa arautzen duena.

-39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena.

-07/2022 , Legea, apirilaren 8koa, Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

- 665/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 12koa, Langileak lanean agente kantzerigenoen eraginpean egoteari lotutako arriskuetatik babestekoa.

-1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Eraikuntza-obretako segurtasunaren eta osasunaren arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen.

-374/2001 Errege Dekretua, apirilaren 6koa, Langileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzkoa, lanean agente kimikoekin lotuta izan daitezkeen arriskuen aurka.

-396/2006 Errege Dekretua, martxoaren 31koa, Amiantoaren eraginpean egoteak eragindako arriskua duten enpresei aplikatzen zaizkien gutxieneko xedapenak ezartzen dituen.

-1109/2007 Errege Dekretua, abuztuaren 24koa, Eraikuntzaren sektoreko azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legea garatzea xede duena.

-105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Eraikuntza- eta eraiste-hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzen duena.

-2414/1961 Dekretua, azaroaren 30koa, Ekintzapide nekagarri, osasunkaitz, kaltegarriak eta arriskutsuei buruzko arautegia onartzen duena.

-1982ko uztailaren 21eko agindua, Amiantoa manipulatu behar denean nola jardun azaltzen duena.

-1984ko urriaren 31ko agindua, Amiantoaren kalteak jasateko arriskua eragiten duten lanbideei buruzko araudia onartzen duena.

-1986ko ekainaren 24an Genevan onartutako "Amiantoa segurtasunez erabiltzeko hitzarmena (Nazioarteko Lan Erakundearen 162.a)" berresteko tresna.

- 1046/1989 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, Substantzia eta prestakin arriskutsuen komertzializatzeari eta erabilerari mugak ezartzen dizkiona.
- 1993ko abenduaren 30eko agindua: produktu kimikoak. Substantzia eta prestakin arriskutsuen komertzializatze eta erabilerari mugak ezartzen dizkion azaroaren 10eko 1406/1989 Errege Dekretuaren eranskin bat eguneratzea xede duena.
- 2001eko abenduaren 7ko agindua, Substantzia eta prestakin arriskutsuen komertzializatze eta erabilerari mugak ezartzen dizkion 1406/1989 Errege Dekretuaren I. eranskinaren zati bat aldaraztea xede duena.

Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionalaren (LSOIN) arau teknikoak eta argitalpenak:

- UNE 171370-1: 2014 Araua. Amiantoa. 1. zatia: material amiantodunekin lan egiten duten enpresak kualifikatzea.
- Lanerako Segurtasunaren eta Osasunaren Batzorde Nazionalaren lan-taldeak 2014ko abenduaren 11n eta otsailaren 15ean plazaratutako dokumentua.
- LSOINen “*Amianto-hondakinak: ekoizletik kudeatzailerara*” izeneko dokumentua, 2016ko apirilekoa.
- LSOINen “*Espainiako amianto-zementuzko estalkien bikoizketak aztertzeke lana*” dokumentua.
- LSOINen “396/2006 Errege Dekretuaren IV. eranskinean amiantoarekiko esposizioa ebaluatzeke datuak sartzean kontuan hartu beharreko zenbait alderdi” dokumentua.
- Amiantoaren eraginpean egoteak sortzen dituen arriskuak ebaluatzeke eta prebenitzeko Gida Teknikoa.

Txostenean aipatutako beste testu batzuk:

- Auzitegi Goreneko Gizarte-arloko epaimahaiak doktrina bateratzeko kasazioan emandako epaia. (2022ko otsailaren 22ko 172/2022).

TESTUAN ERABILITAKO LABURDURAK:

- LSOIN: Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionala
- AAEE: Amiantoaren Arriskupeko Enpresen Erregistroa (AAEE)
- EEAE: Eraikuntza Enpresa Akreditatuen Erregistroa
- JMJ: Jarduera Mota Jakina

-GBQ: Gehieneko Balio Onargarria

-LAP: Lan-arriskuen prebentzioa

-LAPL: Lan Arriskuak Prebenitzeko azaroaren 8ko 31/95 Legea.

- 396/2006 ED: 396/2006 Errege Dekretua, martxoaren 31koa, amiantoaren eraginpean egoteak eragindako arriskua duten enpresei aplikatzen zaizkien gutxieneko xedapenak ezartzen dituen.

**SARRERA:****1. Amianto agente kantzerigeno gisa:**

Azaroaren 22ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/2688 (EU) zuzentarauarekin bat etorriz (zeinak langileak lantokian amiantoaren eraginpean egoteari loturiko arriskuetatik babesteari buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2009/148/EE zuzentzua aldaraztea duen xede) **amianto kartzinogeno arriskutsua** da, eta egun oraindik sektore ekonomiko bati baino gehiagori eragiten die, hala nola, eraikinen berritzeari, meatzaritzari eta harrobien ustiapenari, hondakinen kudeaketari eta suak itzaltzeari loturiko jardueri. Sektore horietan guztietan, langileek esposizio-arrisku handia dute. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1272/200/EE erregelamenduaren 3. ataleko VI. eranskinak dioenarekin bat, **Amianto 1A kategoriako agente kartzinogenotzat hartzen da** –hau da, jakina da gizakien hozi-zeluletan mutazio hereditarioak eragiten dituela–. Gaixotasun profesionalei buruzko Europako estatistikek dioskuenez, minbizi profesionalen eragile nagusia da, alde handiz: EUko estatu kideetan minbizi profesionaltzat onartutako kasuen % 78 amiantoarekin loturikoak dira.

Europar Batzordearen kalkuluen arabera (BAT (2021) 323 azkena –Europar Batasunaren esparru estrategikoa laneko osasunaren eta segurtasunaren arloan 2021-2027. Osasuna eta segurtasuna etengabe eraldatzen ari diren lan-mundu honetan), urtero 200.000 langile baino gehiago hiltzen dira Europar Batasunean lanari loturiko gaixotasunen ondorioz. Amiantoarekiko esposizioak berak bakarrik 88.000 bizi baino gehiago galarazten ditu urtean, eta lanean garatutako minbizien % 55 eta % 85 artean kausa horrek eragindakoak dira. Adituen kalkuluen arabera, esposizio horri loturiko hilkortasun-tasak gorantz egiten jarraituko du 2020 eta 2030eko hamarkadetan.

Norbaitek airean suspentsioan dauden amianto-zuntzak arnasten baditu, substantzia horrek gaixotasun larriak eragin diezazkioke, hala nola mesotelioma eta biriketako minbizia. Gaixotasunaren lehen seinaleak, batez beste, esposizioa gertatu eta hogeita hamar urtera hasten dira agertzen, eta kasu askotan, lanari loturiko heriotzak izatera iristen dira.

Bestalde, zuzentzua horren berorren bosgarren kontuan hartuzkoan azaltzen denez, amiantoarekiko esposizio batzuk ez dira hura aktiboki manipulatzearen ondoriozkoak, eta, hala ere, zeharkako esposizioek eragin nabarmenak izan ditzakete osasunean: alde batetik, **esposizio pasibo** delakoa dago, material amiantodunekin lan egiten duten langileengandik hurbil edo material amiantodunak degradatzen diren instalazioetan lan egiten ari diren pertsonak jasaten dutena, eta bestetik, **bigarren mailako esposizio** izenekoa dago, amiantoaren eraginpean lan egiten duten pertsonak –batez ere ilean eta arropan– amianto-zuntzak etxera eramatearen ondorioz, haiekin bizi diren pertsonak jasaten dutena.

2. Espainian amianto-zementuek eta fibrozementuek izandako erabilera



XX. mendean zehar, haren propietate fisiko-kimiko bikainak eta koste txikiak zirela eta, amianto era orokortuan erabili zen askotariko material eta produktuak fabrikatzeko lehengai gisa industriaren, garraioen, eta batez ere, eraikuntzaren esparruetan.

Gehien ekoitzi eta erabili izan den material amiantoduna amianto-zementua edo amiantodun fibrozementua izan da, Espainian eskuarki "uralita" izenez ere ezaguna. Euskaltzaindiak honela definitzen du uralita: *amiantoz eta zementuz eginiko materiala, iraunkorra eta erregaitza, hoditeriak eta estalkiak egiteko erabili izan dena*. Hala, plaka izurtuak, estalkietarako plakak, ur-kanalizazioak, ur-andelak, elementu apaingarriak, tximiniak, zorrotenak, etxe-bizkarrak, hiru aldeko isurialdeak eta abar egiteko ere erabili izan da uralita.

Zehazki, estalkiak egiteko erabili izan dira batik bat fibrozementuzko plakak: eraikinetan, argi-patioetan, etxoletan, industria-nabeetan, abeltzaintza-nabeetan etab. Plaka horiei dagokienez, azpimarratzekoa da, lodiera txikikoak izanik (3 eta 6 mm bitartekoak), oso hauskorrak direla, eta gainera, haiek bermatzeko kako eta torloju bereziak erabili behar direla, plakak zuzenean eraikinari lotu ahal izateko. Gaur egun oraindik eraikin askotan aurki daitezke.

Ziur dakigu, alde batetik, 1920 eta 1984 bitartean Espainian amianto-zementua fabrikatzeko, krisolito-zuntzez gain, amosita- eta krozidolita-zuntzak ere erabili zirela, eta bestetik, 1984tik 2022ra bitartean ia krisolitoa bakarrik erabili zela, zeinak materialaren guztizko pisuaren %10-15 hartzen zuen. Datuen arabera, amianto-zementua gehien erabili zen garaia 1960tik 1984ra artekoa izan zen.

Gaur egun, Espainian ez dago era planifikatuan eta seguruan kendu beharko liratekeen amianto-zementuzko estalki horien kokapenari, kantitateari eta kontserbazio-egoerari buruzko azterlanik, baina inportazioei loturiko datuak (2,6 milioi tona mineral inguru inportatu ziren) eta fibrozementuaren ekoizpenari buruzkoak aztertuz (gutxi gorabehera, inportazioen %77 fibrozementua egiteko erabili zen), kalkulatu da mota horretako materialetan txertatu den amianto-kantitatea 2 milioi tona ingurukoa izan dela. Ildo horretan, fibrozementua fabrikatzean amianto-zuntzen zer ehuneko baliatzen zen kontuan hartuta, badakigu Espainian fibrozementuzko produktuen 20 milioi tona daudela, gutxienez —ehuneko handi bat estalkien elementuak (plaka lauak, plaka izurtuak, erretenak, zorrotenak, andelak etab.) eta ur-horniketarako hodiak dira—, eta 15 milioi metro karratuko azalera hartzen dute.

Gaur egun, honako lan eta esku-hartze hauetan dago langileak amianto-zuntzen eraginpean egoteko arriskurik handiena: *amianto edo material amiantodunak dituzten eraikinen eraipen-, desegite-, kentze-, eraberritze- eta mantentze-lanetan, larrialdi-zerbitzuetan eta suteen aurkako operatiboetan, eta hondakinak garbitzeko, deskutsatzeko eta kentzeko planetan (ikus Kontzeptuak eta Aplikazio-esparrua atalak).*

3. Amiantoaren balio-bizitza:

Azaroaren 10eko Substantzia eta prestakin arriskutsuen komertzializatzeari eta erabilerari mugak ezartzen dizkion 1406/1989 Errege Dekretuaren I. eranskina aldatzea xede duen 2001eko abenduaren 7ko Aginduaren eranskinarekin bat etorritz, *baimenduta*

egongo da amianto-zuntzak dituzten eta Agindu hau indarrean sartu baino lehen instalatuta zeuden produktuak erabiltzea haiek kendu arte edo haien balio-bizitza amaitu arte.

Produktu edo elementu bat fabrikatzen edo instalatzen denean, bere funtzioa zenbat denboraz bete ahalko duen aurreikusi ohi da, eta hori da, hain zuzen ere, produktu baten balio-bizitza, aurreikuspenen arabera produktua baliagarria izango den denbora-tartea. Hori kalkulatzeko, zenbait faktore hartu behar dira kontuan: materiala zer baldintza meteorologikoren eraginpean egongo den (bereziki garrantzitsua estalkien kasuan), bere egitekoa betetzen hasi baino lehen nola biltegitratuko den, erabilera- eta mantentze-baldintzak zein izango diren, etab.

Material amiantodunen arriskuak prebenitzeari dagokionean, honela definitzen da balio-bizitzaren amaiera: produktuaren narriadura-egoera edo haustura-arriskua dela eta materialetik amianto-zuntzak askatzeko aukera sortzen denean, eta aukera horrek inguruan dagoen jendearen osasuna arriskuan jar dezakeenean. Fibrozementuaren kasuan, balio-bizitza produktua fabrikatu zenetik kontaktzen hasita 30-35 urtekoa da; denbora-tarte hori igarota, narriatzen eta propietateak galtzen hasten baita ("Espainian amianto-zementuzko estalkien bikoizketa aztertzeko lana, LSOIN")

Honakoa ezartzen du Europako Parlamentuak 2013ko martxoaren 14an lantokian amiantoaren eraginpean egoteak osasunerako dituen arriskuei eta dagoen amianto guztia deuseztatzeko asmoei buruz emandako ebazpenak: *"kontuan harturik material amiantodunek, oro har, 30 eta 50 urte bitarteko bizi-zikloa izan ohi dutela, horrek berritze- eta eraikitze-proiektuen areagotzea eragin duela, eta ondorioz, amiantoaren eraginpean dauden langileen kopurua ere handitu egin dela..."* (P kontuan hartuzkoa).

Azken aipu horri dagokionez, gogoan izan behar da EBren egungo politiken helburua kide estatuetan oraindik instalatuta dagoen amiantoaren kentzea dela (besteak beste, ikusi ekonomia eta gizarte batzordeak amiantoaren EBtik desagertarazteari buruz emandako EB 2015/C-252/3 txostena).

Beraz, hitz batean, material horien balio-bizitza bukatzen denean, derrigorrezkoa da haiek kentzea 396/2006 Errege Dekretuak dionarekin bat, bai eta haiek hondakin arriskutsu gisa kudeatzea ere, testuinguru horretan aplikagarria den araudiarekin bat etorritik (ikusi Amianto-hondakinen kudeaketari buruzko atala).

AMIANTOAREN ARRISKUPEKO ENPRESEN ERREGISTROAREN (AAEE) KUDEAKETA

1. Aplikagarria den araudia:

Aipaturiko 396/2006 Errege Dekretuaren 17. artikulua honela dio:

1. Errege Dekretu honen aplikazio-eremuan sartzen diren jarduerak edo lanak egin behar dituzten enpresa guztiak enpresaren instalazio nagusiak dauden lurraldeko AAEEen inskribatu beharko dira, III. eranskinean jasotako fitxa betez. AAEE hori, lurralde horretako lan-agintaritzaren barneko organo batek kudeatzen du.

Aurreko paragrafoan aipatutako organoak haren erregistroetan egindako idazpen guztien kopia bidaliko du Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionalera, bertan amiantoak sortutako arriskua duten enpresen erregistroa egongo da eta. Gaiaren gaineko eskumena duten administrazioen erregistroak elkarri komunikatuta egongo dira, daukaten informazio guztia eskura izateko.

2. AAEEen inskribatutako enpresek lehenengo paragrafoan aipatzen den lan-agintaritzari jakinarazi beharko diote lehen aipatutako datuen gaineko edozein aldaketa, hamabost eguneko epean aldaketak gertatzen diren egunetik.

2. Definizioak: enpresa eta instalazio nagusiak:

Enpresa: *Langileek inoren kontura, ordainduta eta beren borondatez eskaintzen dituzten zerbitzuak jasotzen dituen pertsona (fisiko edo juridiko) edo ondasun-erkidegoa, langileak bere antolakuntzaren eta zuzendaritzaren arabera eratzen dituena.*

Zehazki, testuinguru honetan, enpresa bat AAEEen erregistratu beharko da egin nahi duten edo dituzten jardueraren edo lanen batean langileak amianto-zuntzen edo amianto-zuntzak dituzten materialen eraginpean egongo badira edo egoteko aukerarik badago (ikusi Aplikazio-esparruari buruzko atala).

Instalazio nagusiak: enpresak desamiantzatze-jardueraren bolumen handiena non egiten duen, hura izango dira instalazio nagusia, enpresaren egoitza soziala bertan egon ala ez.

3. 396/2006 EDan jasotako jarduerak edo lanak egin nahi dituzten enpresen betebeharrak:

- AAEEen alta egitea.
- Aurretik AAEEen adierazitako datuetan aldaketarik egonez gero, haien berri ematea.
- AAEEko inskripzioa berritzeko eskaera egitea.
- AAEEen baja egitea.

4. AAEEen inskribatzeko eskaera:

Aipatutako Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan sartzen diren jarduerak edo lanak egingo dituzten enpresa guztiak haien instalazio nagusiak dauden lurralde historikoko AAEEen inskribatu beharko dira, *jarduera edo lan horiek hasi baino lehen*, eta, horretarako, testu honi atxikita doan



fitxa erabili beharko dute. Fitxa hori lurralde horretan eskumena duen lan-agintaritzaren webgunean ere aurkitu ahalko da. (396/2006 Errege Dekretuaren 17.1 artikulua).

Aipatutako jarduera edo lan horiek lekualdatutako enpresa batek egingo baditu (Nazioz gaindiko zerbitzuak direla-eta langileak lekualdatzeari buruzko 45/1999 Legearen 1.2 artikulua), enpresa horrek jarduerak lehen aldiz egingo dituen lurraldeko AAEEen egin beharko du alta, lekualdaketa zenbat iraungo duen kontuan hartu gabe.

Jarduera edo lan horiek eraikuntza-lanen esparrukoak badira, AAEEen alta egin baino lehen, EEAEen eman beharko du izena enpresak (horretarako, ikusi Eraikuntzaren sektoreko azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legearen 2. artikulua, eta Eraikuntza-obretarako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren I. eranskina)

Arestian aipatutako inskribatze-fitxaz gain, enpresek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte: ordezkari izaera egiaztatzeko agiri bat; prebentzio-jardunaren planifikazioa frogatzeko dokumentazioa; jardueran arituko diren langileen lan-ibilbidea eskaera-egin den uneko datarekin; fitxan sartutako datuen egiazkotasuna aitortzeko AAEEari egindako adierazpen bat, legezko ordezkariak sinatuta.

5. Aurrez AAEEen adierazitako datuetan aldaketak izan direla jakinaraztea:

Behin enpresa AAEEen inskribatuta, lehendik adierazitako datuetan izandako aldaketa oro enpresa inskribatutako dagoen lurraldean eskumena duen lan-agintaritzari jakinarazi beharko zaio, aldaketa gertatzen denetik 15 egun balioduneko epean, eta, horretarako, testu honi atxikita doan fitxa erabili beharko da. Fitxa hori lurralde horretan eskumena duen lan-agintaritzaren webgunean ere aurkitu ahalko da. (396/2006 Errege Dekretuaren 17.2 artikulua).

Instalazio nagusien helbidea aldatuz gero, baliteke enpresak orain arte inskribatuta egon den AAEEen baja har dezake ordura arte inskribatuta zegoen lurralde historikoko Erregistroan.

6. AAEEko inskripzioa berritzeko nahia jakinaraztea:

AAEEren eraginkortasuna eta efikazia areagotze aldera eta testuinguru honetan aplikagarria den eta indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzeko, baina, batez ere, osasun-monitorizazioko programen bidez langileen osasun postokupazionala monitorizatzen dela bermatzeko, behin inskribatuta, hiru urtean behin, enpresak inskribatuta dagoen AAEE barne hartzen duen lan-agintaritzaren aurrean honakoa aurkeztu beharko du: inskripzioa egitea eragin zuen jarduerak edo lanak aurrera jarraitzen duela frogatzen duen agiri bat, eta, horrenbestez, baita enpresak erregistroan inskribatuta jarraitu nahi duela adierazteko idatzi bat ere. Ez bada hala egiten, eskumena duen lan-agintaritzak beharrezko izapideak hasiko ditu enpresa horri baja eman eta haren inskripzioa baliogabetzeko.

Inskripzioa berritzeko, testu honi atxikita doan fitxa erabili beharko da. Fitxa hori lurralde horretan eskumena duen lan-agintaritzaren webgunean ere aurkitu ahalko da.

7. AAEEn baja egitea:

AAEEren eraginkortasuna eta efikazia areagotze aldera eta testuinguru honetan aplikagarria den eta indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzeko, baina, batez ere, osasun-monitorizazioko programen bidez langileen osasun postokupazionala monitorizatzen dela bermatzeko, AAEEn inskripzioa egitea eragin zuen jarduera amaitu egiten bada, enpresak erregistro horretan baja egin beharko du, jardueraren amaiera gertatzen denetik 15 egun balioduneko epean, eta, horretarako, testu honi atxikita doan fitxa erabili beharko da. Fitxa hori lurralde horretan eskumena duen lan-agintaritzaren webgunean ere aurkitu ahal da. Fitxa betetzeko garaian, kontuan hartu beharko dira bai 396/2006 Errege Dekretuaren 18.4 artikulua bai Lan arriskuak prebenitzeko legearen 23.2 artikulua eskumena duen lan-agintaritzari dokumentuak helarazteari buruz diotena (Ikusi Datuak Erregistratzea eta Dokumentazioa Artxibatzea atalak).

8. AAEEn inskribatutako enpresen zerrenda argitaratzea:

EAEko hiru lurralde historikoetako AAEEtan inskribatuta dauden enpresen zerrenda publikoa izango da eta behar bezala eguneratuta egongo da, enpresen alde aurretiko adostasunaz.

9. LSOINera idazpenen kopiak bidaltzea:

AAEEtan egindako idazpen guztien kopiak lehenbailehen bidaliko dizkio lan-agintaritza horrek LSOINi, bertan amiantoak sortutako arriskua duten enpresen erregistroa egongo da eta (aipatutako 396/2006 Errege Dekretuaren 17.1 artikulua).

Halaber, idazpen guztien kopia bana bidaliko dute, lehenbailehen, Lan-ikuskatzailetzara eta enpresaren instalazio nagusiak dauden lurralde historikoan OSALANek duen egoitzara.

**396/2006 ERREGE DEKRETUARI LOTURIKO KONTU PRAKTIKOAK:****1. 396/2006 EDaren helburua:**

396/2006 Errege Dekretuaren 1.1 artikularekin bat, dekretu horren **HELBURUA** da, laneko arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen esparruan, segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzea langileak lanean amiantoaren eraginpean jarduteko arriskutik babesteko, baita arrisku horiek prebenitzeko ere.

2.1. Aplikazio-esparru subjektiboa

396/2006 EDaren gai da aipatutako jarduera edo lanen bat egiten duen enpresa oro, dela jarduera nagusi gisa dela zeharkako edo unean uneko jarduera gisa; hau da, 396/2006 dekretuaren aplikazio-esparrukoa izango da langileak arnas bideen bitartez amianto-zuntzak arnasteko arriskuan edo amiantodun materialen eraginpean egoteko arriskuan jartzen dituen edo jar litzakeen jarduera oro (Ikusi Aplikazio-esparru objektiboari buruzko atala).

2.2. Aplikazio-esparru objektiboa

2.2.1. Errege Dekretu honen gai dira langileek amianto-zuntzen edo amiantoa duten materialen eraginpean egiten dituzten jarduera eta lanak, eta, bereziki, honako hauek: (396/2006 Errege Dekretuaren 3.1. artikulua eta 2023/2668 zuzentarauko kontuan hartuzkoak):

- eraikitze-, berriztatze- eta birgaitze-lanak;
- amiantoa edo material amiantodunak dituzten eraikuntzak eraisteko lanak;
- amiantoa edo material amiantodunak dituzten elementuak, makinaria edo tresnak desmuntatzeko lanak;
- ekipamenduetatik, ibilgailuetatik (esaterako, itsasontziak, autoak, trenak), instalazioetatik, egituretatik edo eraikuntzetatik amiantoa edo material amiantodunak kentzeko lanak;
- ekipamenduetan, ibilgailuetan (esaterako, itsasontziak, autoak, trenak), instalazioetan, egituretan edo eraikuntzetan material amiantodunak mantentzeko eta konpontzeko lanak;
- material amiantodunak gertu egoteagatik amianto-zuntzak erortzeko arriskua duten mantentze- eta konpontze-lanak;
- amiantoa duten hondakinak garraiatzea, tratatzea eta suntsitzea;
- amiantoa duten hondakinak kudeatzea;
- meatzaritza
- larrialdi-zerbitzuak eta suteen aurkako operatiboak, gune horretan amiantoa edo material amiantodunak badaude;
- hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegiratzen dituzten guneak, edo etxeko hondakinak eta antzekoak selektiboki biltzeko guneak (Garbiguneak), bertako araudi espezifikoaren arabera, amianto-hondakinak onartzen badituzte, edo



halakorik berariaz onartu ez arren, praktikan beren instalazioetan horrelako hondakinak jasotzen badituzte, etiketek eta bilgarriek hala adierazi ez arren;

- amianto-hondakinetarako baimendutako hondakindegia;
- lagin fisiko eta materialak hartzea;
- airea monitorizatzea eta kontrolatzea;
- material amiantodunak manipulatzeko eskatzen duen jarduera edo lan oro, beti ere lan-ingurunera amianto-zuntzak askatzeko arriskua badago.

Goiko zerrendan aipatutako lanak dira lan-ingurunera amianto-zuntzak askatzeko probabilitate handiena dutenak, eta hortaz, baita arnasbideen bitartez langileak edo ondorioak jasan ditzaketen gainerako pertsonak amiantoaren arriskupean jartzeko aukera handiena sortzen dutenak ere. Horrelako lanak testuinguru askotan ager daitezke eta oso desberdinak izan. Lan horiek AAEEen inskribatutako enpresa baten jarduera nagusiaren parte izan daitezke, edo beste mota batzuetako jarduerak egiten dituzten enpresek burutu ditzakete, zeharkako edo unean uneko lan gisa (LSOINen Gida Teknikoa).

Aurrekoa horrela izanda ere, langileak amiantoaren eraginpean noizean behin baino ez badaude, esposizioaren intentsitatea txikia bada eta 5. artikuluan aurreikusitako ebaluazioaren emaitzen arabera argi eta garbi ez bada lan-zonan amianto-esposizioaren gehienezko balio onargarria gainditzen, 11. (lan-plan bat egitea), 16. (langileen osasuna monitorizatzea), 17. (AAEEen erregistratzea). eta 18. (datuak erregistratzea eta dokumentuak artxibatzea) **artikuluak ez dira aplikagarriak izango**, kasu hauetan: mantentze-lan laburrak eta etenak badira, eta material ez-hauskorrekin lan egiten bada; material ez-hauskorrek hondatu gabe kendu ahal badira; egoera onean dauden material amiantodunak kapsuletan sartu eta zigilupean jartzeko lanetan, beti ere lan horiek ez badakarte haiekin batera zuntzak askatzea; airea monitorizatzea eta kontrolatzea, eta laginak hartzea, material jakin batean amiantoa dagoen antzemateko. (396/2006 Errege Dekretuaren 3.2. artikulua).

Beharrezkoa da, hortaz, aipatutako jarduerak azaldutako hiru baldintzak batera betetzea (hau da, langileek jasandako esposizioa noizbehinkakoa izatea; esposizioaren intentsitatea txikia izatea, eta esposizio-arriskua neurtzeko ebaluazioaren emaitzek argi eta garbi adieraztea ez dela gehienezko balioa gaindituko), **jarduera horiek esposizio-arrisku txikikotzat jotzeko**, eta horrenbestez, aipatutako 396/2006 EDaren zenbait artikulutan ezarritakoak betetzetik salbuetsita egoteko. Hala ere, oro har, bai 396/2006 EDaren artikuluetan bai Lan arriskuen prebentziorako legean xedatutako gainerako betebeharrak bete beharko dituzte, bai eta lan-ingurunera amianto-zuntzik askatuko ez dela bermatuko duen lan-prozedura seguru bat ezarri ere (LSOINen Gida Teknikoa).

Ezingo diote salbuespen-atal honi heldu jarduera nagusitzat 396/2006 EDaren 3. artikuluko 1. puntuan zerrendatuta dauden jardueretako bat duten enpresek, nahiz eta frogatu, egiten dituzten lanetako batzuek, banaka aztertuta, intentsitate txikiko esposizioari dagokion baldintza betetzen dutela eta gehienezko balioetatik behera daudela argi eta garbi. (LSOINen Gida teknika).



Noizbehinkako esposizio deritzo langilea aldian behin eta puntualki soilik badago amianto-zuntzen eraginpean, eta aurreikusten bada esposizioa oso gutxitan edo behin bakarrik gertatuko dela (LSOINen Gida Teknikoa).

Esposizio bat intentsitate txikikotzat hartzeko, kontuan hartu behar da, alde batetik, agente kantzerigeno eta mutagenoei buruzko 665/1997 EDaren 5.3 artikulua dioena, hau da, ahalik eta esposizio-mailarik baxuena bermatu behar dela teknikoki posible den heinean, eta bestetik, “Lanean agente kantzerigeno edo mutagenoen eraginpean egotearekin lotura duten arriskuak ebaluatzeko eta prebenitzeko gida teknikoak” dioena, hots, langile batek lanean agente kantzerigeno eta mutagenoekiko zer esposizio-maila duen zehazteko, komenigarria dela langilea agente kaltegarri horren zer kantitate arnastera irits daitekeen kalkulatzeko. *Hala, gida tekniko horretan proposatzen da esposizio-intentsitatea txikitzat hartzea, lan-ingurunean amianto-zuntzen batez besteko kontzentrazioa $0,025 \text{ zuntz/cm}^3$ edo txikiagoa bada. Erreferentziazko balio hori 4. artikuluan aipatzen den gehieneko kontzentrazio onargarriaren laurdena da eta ingurune kontzentrazioaren gehieneko balioaren %5 (giroko kontzentrazioaren gehieneko balioa $0,5 \text{ zuntz/cm}^3$ da). Izan ere, LSOINen “Agente kimikoekiko esposizio profesionalaren mugak Espainian” izeneko dokumentuak ezartzen du giroko kontzentrazioaren gehieneko balio hori ezingo dela inola ere gainditu lanaldiaren une bakar batean ere. Proposatutako balioa ez da esposizioaren gehieneko balio onargarri bat, baizik eta ingurune kontzentrazioa neurtzeko balio bat (LSOINen Gida Teknikoa). Horrenbestez, eta irizpide horri jarraituz, langilea agentearen eraginpean bi orduz egotea eragingo duen noizbehinkako jarduera bat intentsitate txikikotzat joko da jarduera horrek eragindako eguneko esposizioa ez bada $0,006 \text{ zuntz/cm}^3$ ingurura iristen. Hala, langile bat puntualki agentearen eraginpean 60 minutuz egon behar bada amianto-zuntzen batez besteko kontzentrazioa $0,025 \text{ fibra/cm}^3$ -koa den ingurune batean, eguneko esposizioa $0,003 \text{ zuntz/cm}^3$ ingurukoa izango da. Irizpide berori oinarri hartuta, esposizio bat intentsitate txikikotzat hartu eta 3.2 artikuluko salbuespenak aplikatu ahal izateko, bi gauza egiaztatu beharko dira lehenik: alde batetik, manipulatu beharreko material amiantodunak zuntzak askatzeko ahalmen txikia duela (hau da, material amiantodun horren arrisku potentzialaren balorazioa txikia edo oso txikia da) eta, bestetik, jarduera horren ingurune batez besteko kontzentrazioa proposatutako erreferentziazko beherakoa dela ($0,025 \text{ zuntz/cm}^3$ baino txikiagoa, alegia) (LSOINen Gida Teknikoa).*

Ebaluazioaren emaitzei dagokienez, argi eta garbi adierazi beharko dute ez dela amianto-esposizioaren gehieneko balio onargarria gainditu; hau da, ebaluazioan aztertutako eguneko esposizioa EE-GBOaren %10 baino gutxiagokoa izan beharko da. Hala, noizbehinkako esposizio batean ingurune batez besteko kontzentrazioa $0,02 \text{ zuntz/cm}^3$ bada, zeina intentsitate txikikotzat hartuko den aipatutako irizpideen arabera, jarduera horrek 4 ordu iraun ahalko ditu gehienez EE-GBOren hamarrena ez gainditzeko eta hirugarren baldintza hori betetzeko –hau da, $0,02 \text{ bider } t/8 < 0,01$ –. 3.2a puntuan jasotako irizpidea betetzen duten iraupen laburreko jardueri dagokienez; hau dau, ingurune kontzentrazioa aipatu berri dugun baldintzan adierazitako balio



orientagarritik behera mantentzea zaila den kasuetan, 3.2 artikuluko jardueratzat hartuko dira lanbide-esposizioaren mugei buruzko dokumentuan jasotako desbiderapen-mugak gainditzen ez badira; hots, jarduera konkretu eta noizbehinkako horri dagokion eguneko esposizioa 0,1 EE-GBOtik beherakoa bada. Oso zaila denez aireko zuntz-kontzentrazioaren neurketetan oinarritutako ebaluazio kuantitatibo fidagarriak eskuratzea –batez ere jarduera labur eta noizbehinkakoetan–, ebaluazioa egingo duen teknikariak iritzira kalkulatu ditzake balioak, jarduera jakin bat oinarri hartuta, aurreko esperientzietatik abiatuta edo prestigio aitortua duen erakunderen batetik LSOIN, HSE, INRS, eskuratutako datuak erabilita. Ordea, teknikariak ez badu eskura informazio fidagarri eta egiaztagarririk jarduera bati 3.2. artikulua aplikatu ahal zaion ala ez erabakitzeko, informazioa hori izan arte, esposizio-baldintza posibleen artetik kaltegarrienak hartuko dira abiapuntutzat ebaluazioa egiteko, eta horrela, oso zaila izango da aipatutako hiru baldintzak betetzea, bai eta, oro har, Errege Dekretuan ezartzen diren irizpide orokorreki egokitzea ere (LSOINen Gida Teknikoa).

Aipatutako 3.2. artikuluan sar daitezkeen jarduera eta lanei dagokienez, jarduera bat arrisku txikikotzat hartzeko, honako alderdi hauek hartzen dira kontuan: manipulatu den material mota eta haren kontserbazio-egoera; erabiliko den lan-metodoa (materiala hondatzeko edo zuntzak askatzeko arriskurik sortzen ez duten prozedurak), eta lanak egingo diren tokia edo ingurua (adibidez, kanpoan edo erabilerarik ez duten instalazioetan egingo diren lanak). Faktore horiek guztiak uztartzen diren jarduera batean zuntzak askatzeko probabilitatea oso txikia edo nulua izan beharko litzateke, eta, horrenbestez, ingurune kontzentrazioaren balio hori intentsitate txikiko esposizio bati dagokiona izan daiteke, eta, argi garbi amianto-esposizioaren gehieneko balio onargarritik beherakoa izango da. Horrelako egoeretan, baliteke aireko kontzentrazioaren neurketetan lortutako emaitzak MTA/MA 051/A04 metodoaren (“Airean amianto-zuntzak eta bestelako zuntzak antzematea. Mintzen bidez iragazteko metodoa/fase kontraste mikroskopio optikoa”) kuantifikazio-mugetatik beherakoak izatea. Ezinezkoa da atal horretan sar litezkeen jarduera konkretuen adibideen zerrenda zehatz bat ematea, jarduera bat arrisku txikikotzat jotzea jarduera horren ezaugarri espezifikoaren mende egongo baita.

3. Nork duen lan-plana egiteko ardura:

3.1. Aplikagarria den araudia:

396/2006 EDaren 11.1 artikularekin bat, enpresaburuak lan-plan bat sortu beharko du, langileak amiantoaren eraginpean egoteko arriskua egongo den lan bakoitza hasi baino lehen, lan hori aipatutako Errege Dekretuaren aplikazio-esparruaren barnean badago. Hortaz, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua eragingo duten lanak egingo dituen enpresarena izango da lan-plana sortzeko eta hura zorrotz beteko dela bermatzeko ardura.

Aipatutako 396/2006 EDaren 11.5 artikularekin bat, ED honen aplikazio-esparruan dauden lanak egiteko beste enpresa batzuk kontratatzen edo azpikontratatzen dituzten

enpresaburuek egiaztatu egin beharko dute kontratista edo azpikontratista horiek jarduerari dagokion lan-plan bat dutela. Egiaztapen hori egin ahal izateko, behin lan-agintaritzak onartu bezain laster, lan-plan hori enpresa nagusiari helarazi beharko dio enpresa kontratatu edo azpikontratatuak.

3.2. Nork duen prebentzioa antolatzeako ardura:

Enpresa batek higieine industrial delako diziiplina barne hartzen duen prebentzio-zerbitzu propioa badu, zerbitzu horretan aritzen diren teknikariek egingo dute lan-plana. Teknikari horiek, jakina, diziiplina edo espezialitate horretan goi-mailako eginkizunak betetzeko trebakuntza izan beharko dute.

Enpresa batek higieine industrial delako diziiplina bere gain hartzen badu, espezialitate horretan goi-mailako eginkizunak betetzeko prestatuta dagoen langile bat eginkizun horretarako izendatuz, pertsona horrek egingo du lan-plana.

Enpresa baten prebentzio-zerbitzuak ez badu bere gain hartzen higieine industrial delako diziiplina, horrek esan nahi du enpresaz kanpoko erakunde batekin itundu duela prebentzio-zerbitzuak jasotzea, eta, kasu horretan, derrigorrez, erakunde horrek egin beharko du lan-plana. Kasu horretan ere, higieine industrialean goi-mailako trebakuntza jaso duten teknikariek idatziko dute testua.

3.3. Lan-plana eta egileak:

Plana egiteko garaian, zinez gomendagarria da laneko arriskuen prebentzioko goi-teknikaria den eta higieine industrialean espezializatuta dagoen norbaiten zuzendaritzapean jardutea. Laginketa beharrezkoa den kasuetan, higienista batek diseinatu beharko du jarduera hori, eta planean azaldu beharko da. Gero, laneko arriskuen ebaluazioa egingo duen teknikariak burutu dezake laginketa (LSOINen Gida Teknikoa).

Bestalde, lan-planak honako datu hauek hartu beharko ditu barne, besteak beste:

- Enpresaren datuak: izena, helbidea, harremanetarako telefonoa, helbide elektronikoa.

- AAEEko inskripzio-zenbakia, enpresa jarduera burutuko den erkidegoan inskribatuta egon beharrean beste erkidego bateko AAEEen izenda emanda dagoenean. Horrelako kasuetan, AAEEen inskripzioa egitean jasotako egiaztagiraren kopia bat ere eman beharko da.

- Lan-planaren arduradunaren izena eta sinadura. Lan-planaren egileak: izen osoa eta enpresan duten kargua adierazi beharko dira. Plana idatzi zeneko data.

- Amiantoaren eraginpean egoteko arriskua ebaluatu duen, eta behar izan den kasuetan, laginketaren estrategia diseinatu duen eta ingurune-laginen bilketa egin/ikuskatuko duen langilearen izena, zeina ezinbestean laneko arriskuen prebentzioko goi-teknikaria eta higieine industrialean espezializatua izango den.

- Zer motatako prebentzio-zerbitzua duen enpresak, eta enpresaz kanpoko entitateekin itundutako prebentzio-zerbitzurik izanez gero, itunaren edukia.



- 396/2006 EDaren esparruan jasotako lanak beste enpresa bati kontratatatu edo azpikontratatu dizkion enpresa titularraren edo sustatzailearen, entitatearen edo erakunde parekagarriaren identifikazioa.

4. Langileen trebakuntza:

4.1. Aplikagarriaren araudia:

396/2006 EDaren 11.2 artikuluaren arabera, lan-planak, honako alderdi hauek garatu beharko ditu, besteak beste: *lanetan zuzenean parte hartuko duten eta material amiantodunekin kontaktuan egongo diren langileen zerrenda. Zerrenda horretan, langileen izena, kategoria profesionala, funtzioa, trebakuntza eta aipatutako lan-motetan duten esperientzia adierazi beharko dira.*

396/2006 EDaren 13.1 artikuluaren arabera, *enpresaburuak bermatu beharko du hauts amiantodunaren eraginpean egongo diren edo egoteko aukera izan dezaketen langile guztiek behar bezalako trebakuntza jaso dutela. Trebakuntza horren gastuak ez dituzte inola ere langileek ordaindu beharko, eta amiantoarekin loturiko jarduera edo lan bat hasi baino lehen beti jaso beharko dute trebakuntza, bai eta betetzen dituzten egitekoak aldatzen diren bakoitzean, teknologia berriak erabiltzen hasten direnean edo laneko ekipamenduak aldatzen dizkietenean ere. Gainera, trebakuntza aldizka errepikatu beharko da, denbora-tarte jakin batean behin.*

396/2006 EDaren 13.2 artikuluaren arabera, *trebakuntzaren edukiek ulerterrazak izan beharko dute langileentzat, prebentzio- eta segurtasun-arloan beharrezkoak diren jakintzak eta gaitasunak eskuratzeko balio diezaion. Zehazki, honako kontu hauek hartu beharko ditu barne trebakuntzak:*

a) *amiantoaren propietateak eta hark osasunean dituen eraginak, tabakismoaren eragin sinergikoa barne.*

b) *zer material eta produktuk izan dezaketen amiantoa*

b) *zer jarduerak eragin dezaketen amiantoaren eraginpean egotea, eta esposizioa minimizatzeko babes-baliabideen garrantzia*

d) *lan-jardunbide seguruak, kontrolak eta babes-ekipamenduak*

e) *arnas-ekipamenduen funtzioa, hautaketa, erabilera egokia eta mugak*

f) *erabiliko den ekipamenduaren arabera, arnas baliabideek ondo funtzionatzen dutela egiaztatzeko moduak eta metodoak*

g) *larrialdietan nola jardun*

h) *deskutsatze-prozedurak*

i) *hondakinak deuseztatzea*

j) *osasuna monitorizatzearen arloko betebeharra*

Laneko arriskuak prebenitzeko legearen 19. artikulua dioenez, *babes-eginbeharra betetzeko, enpresaburuak bermatu beharko du, langile bakoitzak izatea trebakuntza teorikoa eta praktikoa, behar bestekoa eta egokia, kontratua egiteko unean, kontratu-*



modalitatea edo iraupena edozein dela, edota langileak dituen eginkizunak aldatzen direnean edo lan-ekipamenduetan teknologia berriak aplikatu nahiz aldaketak egiten direnean. Trebakuntza langile bakoitzaren lanpostu edo eginkizunaren arabera izan beharko da, eta arriskuen bilakaerari eta ager daitezkeen arrisku berriei egokitu beharko zaie, eta, hala behar izanez gero, aldian-aldian errepikatu beharko da. Aurreko idatz-zatiak aipatu trebakuntza eman beharko da, ahal den neurrian, lanaldian edo lanaldian ezin bada, beste ordu batzuetan, baina trebakuntzako denbora lanaldiari deskontatuta. Enpresak eman dezake trebakuntza, bere zerbitzuen bidez edo enpresatik kanpoko zerbitzuekin egindako hitzarmenaren bidez; langileek inoiz ez dituzte jasango trebakuntzaren kostuak.

4.2. Trebakuntza-saioen helburua:

Honakoa da trebakuntza-saioen helburu nagusia: hauts amiantodunaren eraginpean egongo diren edo egon litezkeen langileek prebentzio- eta segurtasun-alorreko beharrezko ezagutzak, gaitasunak eta trebeziak eskuratzea; hau da, beharrezko trebakuntza jasotzea, beren eginkizunak betetzean zer arrisku dauden jakin dezaten, lan-prozedurak behar bezala aplika ditzaten eta prebentzio-neurriak bete ditzaten, hartara, beren burua eta gainerakoak babesteko.

Komenigarria da trebakuntza-ziklo bakoitza bukatzean banan-banan ebaluatzea ea langileek gaitasunak berenganatu dituzten ala ez, hala, agindutako eginkizunak betetzeko gai diren jakiteko; horrela ez dela ikusten bada, enpresak lan horietatik baztertu beharko du langilea.

4.3. -Lan-agintaritzari lan-planarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa: prebentzio-saioen egiaztagiria.

Lan-plana onartzeko eskaerarekin batera, langileek prebentzio-arloko trebakuntza behar bestekoa eta egokia jaso dutela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du enpresaburuak.

Horretarako, honakoak zehaztu beharko dira langile bakoitzari buruz: jaso dituen trebakuntza-zikloaren edukia, saioren data, iraupena, trebatzailearen izena, langilearen identifikazio-datuak, trebatzailearen eta langilearen sinadura –2023 / 2668 EB zuzentarauaren I. bis eranskinean ezarritakoarekin bat –.

4.4. -Trebakuntza-zikloaren iraupena:

Indarrean dagoen araudiarekin bat, honakoa izango da trebakuntza-zikloaren gutxieneko iraupena: langileek prebentzio- eta segurtasun-arloko beharrezko ezagutzak eta gaitasunak eskuratu ahal izateko behar bestekoa eta egokia dena. Hala, trebakuntza-zikloa diseinatzean faktore jakin batzuk hartu beharko dira kontuan, hala nola, *trebakuntza-zikloaren helburua, lan-mota, trebakuntza jasoko duten langileen profila, langileen gaitasunak, aniztasuna, ikasteko gaitasuna, aldez aurreko esperientzia, ea lehen trebakuntza-saioa edo berrikusketa den etab.*

UNE 171370-1:2014 arauarekin bat, komenigarria da prebentziorako trebakuntzak (teoriko eta praktikoa) taulan adierazitako gutxieneko iraupena izatea. Lau motatako trebakuntzak egongo dira: hasierakoa (amiantoaren eraginpean lehen aldiz lan egin baino lehen jasoko dena), lehen berrikusketa (hasierako trebakuntzaren balio-denbora bukatzean egingo dena, gehienez, hasierako trebakuntza bukatzetik 6 hilabetera), aldizkakoa (urtean behin egingo da, edo lan-prozeduretan aldaketak egiten diren aldiro) eta berrikuste-saioak (amiantoarekin lan egin zen azken alditik urte bat baino gehiago igarotzean egin beharrekoa).

PROPOSATUTAKO IRAUPENA (UNE 171370-1:2014)				
	<u>Hasierako trebakuntza</u>	<u>Lehen berrikusketa</u>	<u>Aldizkako trebakuntza</u>	<u>Berrikuste-saioak</u>
<u>TEKNIKARIAK</u>	20 ordu	6 ordu	6 ordu	20 ordu
<u>OBRA- IKUSKATZAILEAK</u>	20 ordu	6 ordu	6 ordu	20 ordu
<u>LANGILEAK</u>	20 ordu	6 ordu	6 ordu	20 ordu

Segurtasunean eta osasunean kalte larriak eragin ditzaketen arrisku profesionalei buruz eta horiek ekiditeko prebentzio-neurriei buruz langileei informazio eta trebakuntza behar bestekoa eta egokia emateari loturiko betebeharrak ez betetzea, laneko arau-hauste da, zehazki, lan-arriskuen prebentzioen arlokoa, eta oso larri gisa tipifikatutako kasuetan izan ezik, arau-hauste larri gisa tipifikatuta dago eta zigorgarria izango da lan-ikuskatzaitzak hala proposatuz gero.

4.5. - Noiz egingo diren trebakuntza-zikloak. Aldizkakotasuna:

Trebakuntza-zikloak honako une hauetan egingo dira: amiantoaren eraginpeko jarduerak edo lanak hasi baino lehen, langileek betetzen dituzten funtzioetan aldaketak dauden bakoitzean, teknologia berriak erabiltzen hasten direnean eta lanerako ekipamenduak aldatzen direnean, eta, beti ere, denbora-tarte jakin batean behin errepikatuko dira. Horrez gain, enpresak egiten dituen jardueretan aldaketak daudenean ere errepikatu beharko da trebakuntza.

LAPLaren 19.2 artikulua dioenez, ahal den neurrian, lanaldian edo, lanaldian ezin bada, beste ordu batzuetan egin beharko da trebakuntza, baina trebakuntzako denbora lanaldiari deskontatuta.

4.6. - Trebatzailearen profila:

Trebatzaileak, gutxienez, goi-mailako funtzioak bete ahal izateko eskatzen den prebentzio-trebakuntza izan beharko du, eta industria-higienean espezializatuta egon. Horrez gain, esposizio-arriskuei eta beharrezko prebentzio-neurriei buruz nahikoa jakin beharko du.

Trebatzailea enpresako prebentzio-antolakundearen parte izan daiteke (prebentzio-zerbitzu propioa edo horretarako esleitutako langileak) edo ez (enpresaz kanpoko prebentzio-zerbitzua edo haren bidez kontratatutako erakundeak/profesionalak), enpresak bere baliabideak edo kanpokoak erabil baititzake. Hori bai, langileek ez dituzte inoiz beren gain hartu beharko trebakuntzaren kostuak.

Horretarako, enpresak egiaztatu beharko du trebatzaileak behar dituen baliabideak eskura dituela, enpresa baita bere langileen trebakuntzaren alderdi guztiak behar bezala betetzen direla bermatzeko azken erantzulea (kalitatea, irakatsitako edukiak behar bestekoak izatea etab.).

4.7. - Trebakuntza-zikloen edukia:

Trebakuntza-zikloek atal teoriko bat eta praktiko bat izan beharko dituzte. Teorikoak, gutxienez, 396/2006 EDaren 13. artikuluan jasotako edukiak hartu beharko ditu barne, eta praktikoa, alderdi hauek praktikan jartzeko entrenamendu batez edo gehiagoz osatuta egongo da:

- material amiantodunak in situ identifikatzea.
- babes-ekipamendu pertsonalak; deskutsatze-kabinak
- hautsa kentzeko eta ez hedatzeko ekipamenduak eta sistemak
- hondakinen kudeaketa
- material amiantodun hauskorrekin lan egitea: konfinamendua eta presio negatiboa; seinaleztapena; etab.

Dena dela, edukia behar bestekoa eta egokia izan beharko da, lan-postu jakin horri moldatua, eta langileek erraz ulertzeko modukoa. Langileek prebentzioaren eta segurtasunaren alorreko beharrezko ezagutzak eta gaitasunak eskuratzea da helburua, eta hortaz, langileek ulertzen duten hizkuntza batean izan beharko dira saioak.

4.8. -Prebentzio-baliabidea trebatzea:

Enpresak Prebentzio-baliabide izendatzen duen langileak ere dagokion prebentzio-trebakuntza jaso behar du. Gutxienez, oinarritzko mailako funtzioak bete ahal izateko trebakuntza jasoko du, eta horrekin batera, baita haren esku-hartzea eska lezaketen lanei, garatu beharreko teknikei, araei, arriskuei eta aplikatu beharreko prebentzio-neurriei buruzko trebakuntza teoriko eta praktiko berariazkoa ere; hau da, ikuskatu beharreko jarduera osatzen duten alderdi guztiei buruzkoa *–gutxienez, 50 orduko trebakuntza jaso beharko du, eta eraikuntzako arloan, gutxienez 60 ordukoa–*.

4.9. - Eraikuntza-obren esparruko desamiantatze-lanak:

Eraikuntza-obren esparruan garatzen diren lanei dagokien, hauts amiantodunaren eraginpean egongo diren edo egon litezkeen langileek, amiantoari loturiko prebentzio-trebakuntzaz gain, beteko duten lan-postuari dagokion prebentzio-trebakuntza berariazkoa ere jaso beharko dute, aplikatu beharreko lan-hitzarmen kolektiboak dioenari jarraituz.



5. Laginak biltzea:

5.1. Esposizioa neurtzeko laginak biltzea:

Honela dio 396/2006 EDaren 5. artikulua, lan-ingurunearen ebaluazioari eta kontrolari buruzkoak:

- 1. Amiantoaren edo material amiantodunen eraginpean egoteko arriskua eragin lezakeen jarduera mota jakin orotan, azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 16. artikuluan aipatzen den arriskuen ebaluazioa egin beharko da. Horretarako, lantokiko airean amianto-zuntzen zer kontzentrazio dagoen neurtu beharko da, eta 4.1. artikuluan ezarritako gehieneko balioekin alderatu, hartara, langileek jasango duten esposizioa nolakoa eta zer mailakoa den jakiteko. Ebaluazioaren emaitzek agerian uzten badute jarduera burutzeko prozedura aldatzeko beharra dagoela, dela lan egiteko modua aldatuz dela prebentzio-neurri gehiago hartuz, aldaketa horiek egin ondoren beste ebaluazio bat egin beharko da. Bestalde, atal honen hizpide den arriskuen ebaluazioak hala eskatzen duenean, eta 4. artikuluan xedatutako gehieneko balioa gaindituko ez dela bermatzeko, enpresaburuak lan-baldintzen aldizkako kontrolak egingo ditu.*
- 2. Ebaluazioak aldizka errepikatuko dira. Hori bai, lan-prozeduretan, jardueraren ezaugarrietan edo, orokorrean, lan-baldintzetan langileen esposizio-arriskuan eragina izan dezakeen funtsezko aldaketa bat gertatzen bada, derrigorrezkoa izango da aldaketak jasan dituzten lan-postuak lehenbailehen ebaluatzea.*
- 3. Lan-baldintzen kontrolak eta arriskuen ebaluazioak zer maiztasun izango duten zehazteko garaian, gutxienez, langileengandik jasotako informazioa hartu beharko da kontuan, eta bereziki, hasierako esposizioa handitu dezaketen faktoreak hartuko dira aintzakotzat.*
- 4. Arriskuen ebaluazioak egingo dituzten pertsonak gutxienez, goi-mailako funtzioak betetzeko eskatzen den prebentzio-trebakuntza izan beharko dute, eta industria-higienean espezializatuta egon, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren VI. kapituluak dioenarekin bat. Laginak biltzeko eta aztertzeko (zuntz-kontaketa) prozedurak I. eranskinean ezarritako baldintzak beteko ditu. Errege Dekretu horren ondorioetarako, amianto-zuntzak honakoak izango dira: materia horren partikulak, edozein motatakoak direla ere, haien luzera 5 mikrometro baino handiagoa bada, diametroa 3 mikrometro baino txikiagoa eta luzera-diametroa erlazioa 3 baino handiagoa.*

5.2. Jarduera Mota Jakina (aurrerantzean, JMJ):

JMJ deritzo enpresa batek material mota berak erabiliz, prozedura beren bidez eta antzeko lan-baldintzetan egiten dituen lanen multzoari (adibidez, estalki bateko amiantodun fibrozementuzko plaka izurtuak kentzea, behetik eta narriadurarik eragin



gabe, hala behar izanez gero lehenago gunea hezetuz, eta, torlojuak zizailaren tankerako eskuzko tresnen bidez moztuz) (LSOINen Gida Teknikoa).

Hala, JMJ bera denean, eta esposizioa gehieneko balio onargarritik beherakoa dela egiaztatuta dagoenean, ez da beharrezkoa izango hurrengo lanetako esposizioa ebaluatzeko neurketak egitea, hori bai, testu honetan aurrerago aipatuko diren ingurune-kontrola eta aldizkako ebaluazioa egiten jarraitzea ezinbestekoa izango da.

5.3. Teknikari eskuduna:

Teknikari eskudunek, bai laginen bilketak (pertsonetakoak, inguruneakoak eta fisikoak) bai ekintza sinpleak (adibidez, laginketarako bonba martxan jartzea eta gelditzea; lagin-hargailua kokatzea eta kentzea; haiek erabili ondoren laginketarako aparailu guztiak garbitzea...) egin ahal izateko, berariazko ezagutza egokiak izan beharko dituzte; hau da, goi-mailako funtzioak bete ahal izateko eskatzen den gutxieneko prebentzio-trebakuntza izan eta industria-higienean espezializatuta egon beharko dute, edo bestela, erdi-mailako teknikaria izan eta goi-mailako teknikari baten ikuskaritzapean egon. Horrez gain, gomendagarria da, trebakuntza hori osatzeko, amiantoari loturiko trebakuntza gehigarria eta espezializatua jasotzea.

Teknikari horiek enpresaren prebentzio-zerbitzukoak izan beharko dute (dela esleitutako langilea; dela enpresaren edo enpresaz kanpoko prebentzio-zerbitzukoak, edo prebentzio-zerbitzu mankomunitatukoak).

Bestalde, gogorarazi nahi da, prebentzio-erakunde horiek, beren katalogoaren barruan lagin-bilketa (pertsonetakoak, inguruneakoak eta fisikoak) badute, eta jarduera hori maiz egiten badute, ez dutela 396/2006 Errege Dekretuaren 3.2 artikuluan ezarritako salbuespenaz baliatzeko aukerarik izango, eta hortaz, haientzat derrigorrezkoa izango dela AAEEen inskribatzea eta lan-agintaritzak eskudunak onartutako lan-plan orokor bakar bat izatea, pertsonetako laginak, inguruneako laginak eta lagin fisikoak hartu ahal izateko.

5.4. Prozedura:

LSOINek Munduko Osasun Erakundearen metodoa oinarri hartuta diseinatutako MTA/MA-051 metodoa (*"Airean amianto-zuntzak eta bestelako zuntzak antzematea. Mintzen bidez iragazteko metodoa/fase kontrasteko mikroskopia optikoa* da) aireko zuntzen kontzentrazioa neurtzeko gomendatzen dena.

Emitza baliokideak lortzeko gai diren metodoak guztiz baztertu behar ez diren arren, komeni da azpimarratzea aurreko paragrafoan aipatutako MTA/MA-051 dela Langileak lantokian amiantoaren eraginpean egoteari loturiko arriskuetatik babesteari buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak azaroaren 30ean emandako 2009/148/EE zuzentarauan lehentasunez gomendatzen dena.

Metodo horrek laginak hartzeko eta aztertzeko prozedurak deskribatzen ditu, lagin horiek langileen esposizio pertsonala neurtzeko eta airearen kontrola egiteko garaian nola baliatu jakiteko. Hala, honelako egoeretan egingo dira laginketak: lantoki bateko ingurunean material amiantodunak daudela edo egon litezkeela susmatzen denean; amiantoari loturiko lanak egiten ari diren leku itxien kanpoaldean; deskutsatze-

kabinetan, edo amiantoari loturiko lanak berriki egin izan diren tokietan. Lagin-bilketaren helburua lantokia eta inguruko guneak kutsatuta geratu ez direla eta haietan amiantoaren eraginpean egoteko arriskurik ez dagoela ziurtatzea da. Aireko amianto-zuntzak neurtzeko gehien erabiltzen den metodologia mikroskopia optikoa da.

Metodo horren bidez lortutako emaitzek aldakortasun handia dutenez, emaitzen kalitatea bermatzeko, LSOINen Gida Teknikoko 3. gehigarrian azaltzen den bezala jokatzeko gomendatzen da bai laginak hartzean bai haiek aztertzean.

Lagin-bilketaren kalitatea bermatzeko, gomendagarria da sistema bat diseinatzea, eta hura burutzeko, laginketa, kalibrazioa, kontrola, erregistroak eta abar burutzeko ekipamenduak baliatzea. Ebaluazioaren maila analisi-laborategietan exijitzen denaren antzekoa izatea da helburua. Horrez gain, gomendagarria da, inguruneke neurketak egin aurretik, amiantoa ez den beste material baten edo batzuen zuntzak egon daitezkeela aintzat hartzea. Ordea, arestian aipatutako metodoa baliatuz ez da posible amianto-zuntzak bestelako zuntzetatik bereiztea, eta hortaz, bereizketa hori egiteko beharra izanez gero, mikroskopia elektronikoan oinarritutako metodoak erabili beharko dira.

5.5. Arriskuak ebaluatzea:

Amiantoaren eraginpean egoteko arriskua eragin dezakeen lan bat hasi baino lehen, arrisku horren ebaluazioa egin eta lan-planean sartu beharko da. Material amiantodunei loturiko lan guztietan da beharrezkoa aldezturik aurretiko ebaluazioa egitea, ebaluazio hori izango baita oinarria prebentzio-neurriei loturiko erabakiak hartzeko eta erabiliko diren lan-prozedurak diseinatzeko.

Ebaluazioa egitean, informazio-iturri fidagarrietatik ateratako datuak edo norberak bildutakoak erabili daitezke (esaterako, enpresak berak aurreko aldi batean egindako neurketak). JMJ bateko esposizioari buruzko datu orientagarri fidagarriak eskuratzeko modurik izan ezean, zehaztasun-printzipioa baliatzea gomendatzen da, eta GBO-EE gaitzen delako hipotesia onartzea. Aireko amianto-zuntzak beti neurtu beharko dira jardura bat lehen aldiz egiten hastean, eta lanak hasi bezain pronto, ahalik eta lasterren.

Ebaluazioak beti jaso beharko ditu aireko amianto-zuntzen kontzentrazioaren neurketak.

Hala ere, horrek ez du esan nahi egingo diren lan guztietan banan-banan neurketak egin beharko direnik, esposizioaren ebaluazioa aurreko jardueretan egindako neurketetan oinarritu baitaiteke.

Ebaluazioak aldizka errepikatu behar dira. Horietan, gutxienez, langileengandik jasotako informazioa hartu beharko da kontuan, bai eta hasierako esposizioa handitu dezaketen faktoreak ere. Eta lan-prozeduretan, jardueraren ezaugarrietan edo, orokorrean, lan-baldintzetan langileen esposizio-arriskuan eragina izan dezakeen funtsezko aldaketaren bat gertatzen bada, derrigorrezkoa izango da egoera berria lehenbailehen ebaluatzea.

5.6. Emaitzak:

Neurketetatik abiatuta egindako ebaluazioaren emaitzak EE-tik gorakoak badira, lan-prozedurak eta hari loturiko prebentzio-neurriak hobetu egin beharko dira, edo bestela, inguruneko zuntz-kontzentrazioa gutxitzeko garaian eraginkortasuna erakutsi duen beste lan-prozedura bat ezarri. Behin prozedura aldatuta edo prozedura berria ezarrita, ebaluazio berri bat egin beharko da, eta horretan ere, ezinbestekoa izango da aireko amianto-zuntzen kontzentrazioa neurtzea.

Ebaluazioaren emaitzak EE-GBOak ezarritako mugetara iristen ez badira, aurrerago egingo diren aldizkako ebaluazioak programatu beharko dira, beste helburu batzuen artean, 4. artikuluko gehieneko balio onargarria gainditzen ez dela bermatzeko.

Ebaluazioaren emaitzak GBOtik gorakoak badira, enpresaburua berehala saiatu beharko da prebentzio- eta babes-neurri egokiak hartuz egoerari konponbide bat aurkitzen.

5.7. Dokumentazioa:

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko legearen 23. artikuluan eta 396/2006 EDaren 7. artikuluan zehaztuta dagoenez, arriskuen ebaluazioa dokumentatu egin behar da. Ebaluazioan erabilitako informazioaren eta baliatutako irizpideen erregistro eguneratua izan beharko du enpresak, bai eta baliatutako laginketa-estrategiaren nondik norakoak jaso ere.

Horrez gain, lan-prozedurari egindako aldaketa guztiak xehetasun handiz dokumentatu beharko dira, eta behin lanak bukatuta, langileek jasandako esposizio-mailari buruzko datuak aurkeztu beharko dira 396/2006 EDaren 18. artikulua eta ED horren IV. eranskinak diotenarekin bat.

Bestalde, dokumentazio horretan sartu beharko dira aldizkako ebaluazioak, eta, hala badagokio, hau da, 396/2006 EDaren 3.2 artikuluan sar litekeen jardueretako bat bada, bai eta jarduera arrisku txikikotzat jotzeko arrazoiak ere.

6. Amianto-zuntzen analisi kuantitatiboan espezializatutako laborategiak:

6.1. 396/2006 EDaren 5.5 artikuluan jasotakoekin bat, *amianto-zuntzen analisia (kontaketa) horretan espezializatuta dauden laborategietan soilik egin ahalko da; hau da, horrelako analisiak egin ahal izateko, laborategia kokatutako dagoen lurraldeko lan-agintaritzak lan horietarako egokitasuna formalki aitortu beharko dio laborategiari, II. eranskinean ezarritako prozeduraren arabera.*

6.2. 396/2006 EDaren II. eranskinak dioenez, laborategi bat amianto-zuntzen analisisian (kontaketa) espezializatuta egoteko, horretarako egokitasuna formalki aitortu beharko zaio, objetiboki eta haren gaitasun tekniko oinarri hartuta. Aitorpen hori laborategia kokatuta dagoen lurraldeko lan-agintaritzak igorriko du.

Lan-agintaritzak igorritako aldeko ebazpenak ez du epemugarik izango, estatu osoan izango du baliozkotasuna, eta BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.



6.3. Hortaz, aurrekoaren ildotik, 396/2006 EDaren II. eranskinak dioenez, espezializatuta dauden eta aitorten formala jaso duen laborategiek soilik egin ahalko dituzte analisiak (zuntz-kontaketak) eta igorri ahalko dituzte MTA/MA-051 metodoari jarraituz egindako analisisen txostenak. Txosten horietan, iragazkietan aurkitutako zuntz-kopuruetatik ateratako ondorioak jaso beharko dira, bai eta CR-02/2005 eta CR-08/2013 dokumentuetako irizpideei eta gomendioei jarraituz kalkulaturako ziurgabetasuna ere, unitate beretan adierazita.

Analisi-txosten horretan sartu beharreko gutxieneko edukiak LSOIN-en Gida Teknikoko 3. Eranskineko 3. taulan datoz jasota. Bestalde, analisi-txosten horretan txertatu ahalko dira, eskatzaileak hala nahi izanez gero, lagindutako aire-bolumena, aireko zuntz-kontzentrazioa eta metodoaren kuantifikazio-muga, honela adierazita: $x \text{ zuntz/cm}^3$.

6.4. Aitorpen hori jaso duten laborategien zerrenda LSOIN-en webgunean dago argitaratuta:

<https://www.insst.es/el-instituto/conoce-el-instituto/servicios-del-instituto/acreditacion-de-laboratorios-de-analisis-de-amianto/listado-de-laboratorios-especializados-en-el-analisis-de-fibras-de-amianto>.

7. Amianto-zuntzen analisi kualitatiboan espezializatutako laborategiak:

7.1. Analisi kuantitatiboan kasuan ez bezala, 396/2006 EDak ez du inolako betekizunik ezartzen edozein laborategi materialetan amiantoa antzemateko analisi kualitatiboak (identifikazioa) egin ahal izateko.

Hala ere, material amiantodun bat aztertzean identifikazio okerrak egitearen ondoriozko manipulazio desegokiak zeinen ondorio larriak izan ditzakeen ikusita, garrantzitsua da laginketen analisi kualitatiboa (identifikazioa) laborategi bati agindu baino lehen, zentro horren gaitasun teknikoa egiaztatzea eta ziurtatzea (LSOINen Gida Teknikoa).

Oraingoz, 396/2006 EDak, II. eranskinaren bidez, amianto-zuntzen analisi kuantitatiboa (kontaketa) egiten duten laborategi espezializatuak beren akreditazioa jasotzeko zer irizpide tekniko bete behar dituen soilik jasotzen du. Hala ere, material bateko amiantoa aztertzeko analisisen beharra dagoenean; hau da, materialeko amianto-mota identifikatzeko laborategi batek egindako azterketaren emaitza behar denean, komeni da lan hori egingo duen laborategiak kalitatea kudeatzeko sistema egoki bati jarraitzea eta erregularitasunez parte hartzea emaitzen fidagarritasuna frogatzeko entsegu-probetan (LSOINen Gida Teknikoa).

7.2. 39/97 EDan xedatutakoekin bat, eta 396/2006 EDak ez duenez zehazten materialetan amiantoa identifikatzeko zer prozedura baliatu behar den, honakoei jarraitzea gomendatzen da: UNE arauetan, LSOINen gida teknikoetan, Nazioarteko Arauetan (ISO), edo, halakorik ez balego, aitortutako prestigioa duten beste erakunde batzuen gidetan jasotako metodoak edo irizpideak, edo antzeko konfiantza-maila eskaintzen duten metodoak (LSOINen Gida Teknikoa).

LSOINek 2009an *“MTA/PI-010 Materialetan amiantoi-zuntzak identifikatzeko metodo kualitatiboa–Polarizazio–Dispertsio metodoa/ Mikroskopia optikoa”* metodoa argitaratu zuen; horretan, ISO 22262-1:2012 *“Air quality – Bulk materials – Part 1: Sampling and qualitative determination of asbestos in comercial bulk materials”* arauan jasotakoaren antzeko prozedura bat deskribatzen da materialen analisia egiteko. Bi metodoek polarizazio-sakabanatze bidezko mikroskopia optikoa baliatzen dute amiantoa identifikatzeko erreferentziazko tresneria gisa, eta antzeko metodologia analitikoa dute. Bai eskuragarritasun- eta sentsibilitate-irizpideengatik bai arrazoi ekonomikoengatik, MOPD metodoa da Europako herrialde gehienetan sarrien erabiltzen eta gomendatzen dena. Hala ere, MOPD metodoaz gain, badaude metodo alternatibo edo osagarri batzuk; esaterako, MOPDaren emaitzak zehazt-zehatzak ez direnean edo mikroskopia optikoaren detekzio-mugatik behera dauden, hau da, metodo horren bidez detektatzeko txikiegiak diren, zuntzak dituzten materialak aztertze erabiltzen direnak. Metodo alternatibo edo osagarri horiek mikroskopia elektronikoa eta X izpien difrakzioa dira. Gainera, ISO 22262 arauak mikroskopia elektronikoan eta X izpien difrakzioan oinarritutako beste metodologia bat ere hartzen du barne (LSOINen Gida Teknikoa). UNE-EN ISO/IEC 17025:2017 arauaren edo baliokide baten bidez akreditatutako laborategi batek beste bati azpikontratatzeko badizkio analisi-jarduerak, analisiaren txostenean ondo frogatuta egon beharko da, beharrezko informazioaren bidez, azpikontratutako laborategiak ere horrelako jarduerak egiteko akreditazioa duela.



LAN-PLANAK KUDEATZEA

1. Administrazio-jarduna:

1.1. Aplikagarria den araudia:

396/2006 EDaren 12. artikulua honakoa ezartzen du lan-planen izapidetzeari buruz:

- 1. Lan-plana jarduerak egingo diren tokiko lan-agintaritzari aurkeztu beharko zaio, hark onartu dezan. Enpresa autonomia-erkidego bateko AAEEen badago erregistratuta, baina jarduera beste autonomia-erkidego batean egingo bada, enpresaburuak, aipatutako AAEE horretan izena emanda dagoela frogatzeko, inskripzio-fitxaren kopia bat aurkeztu beharko du, lan-planarekin batera. Jarduerak egikarituko dituen enpresaren instalazio nagusiak dauden autonomia-erkidegoko lan-agintaritza eskudunak izango du aurreko artikuluko 4. atalean aipatzen diren motako lan-plana onartzeko ardura.*
- 2. Eskaera lan-agintaritza eskudunaren erregistroan sartzen den egunetik, berrogeita bost egunekoa izango da erabakia hartu eta jakinarazteko epea. Epe hori igarota ez bada espresuki ezer adierazi, lan-plana onartutzat emango da. Espediente horretan, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak eta eskumena duten autonomia-erkidegoetako prebentzio-organo teknikoek idatzitako txostenak sartu beharko dira.*
- 3. Lan-plana onartzen duen lan-agintaritza ez denean enpresa erregistratuta dagoen erkidego berekoa, eskaera aztertu duen lan-agintaritzak onarpenezko ebazpenaren kopia bat bidali beharko dio enpresa erregistratuta dagoen erkidegoko lan-agintaritzari.*
- 4. Errege Dekretu honetan jasota ez datozen kontuetarako, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legean ezarritakoak aplikatuko dira.*

1.2. Lan-agintaritza eskuduna:

Lan-plan espezifikoei dagokienez, Lanak egingo diren tokiko lan-agintaritzak du enpresak aurkeztutako plana onartzeko eskumena. Enpresa autonomia-erkidego bateko AAEEen badago erregistratuta, baina jarduera beste autonomia-erkidego batean egingo bada, enpresaburuak, aipatutako AAEE horretan izena emanda dagoela frogatzeko, inskripzio-fitxaren kopia bat aurkeztu beharko du, lan-planarekin batera.

Lan-plan orokor bakarrei dagokienez, jarduerak burutuko dituen enpresaren instalazio nagusiak dauden autonomia-erkidegoko lan-agintaritzak izango du haiek onartzeko eskumena.

1.3 Izapide administratiboak:

Lan-agintaritza eskudunari lan-plana onartzeko eskaera aurkeztu ondoren, agintaritza horrek 45 egun balioduneko epea izango du erabakia hartu eta jakinarazteko —ez dira 45 egun horietan sartuko ez larunbatak ez igandeak ez eta jaiegunak ere—. Ez bada epe horretan ebazpenik ematen, administrazio-isiltasunez onartutzat emango da lan-plana.

Hiru erantzun mota eman ahalko ditu lan-agintaritzak eskudunak: aldeko ebazpena –lan-plana onartzen bada–, aurkako ebazpena –ez bada onartzen–, eta zuzentzeko errekerimendua –hutsuneak ikusten baditu–. Azken testuinguru horretan, erabakia hartzeko eta jakinarazteko gehienezko epea bertan behera geratu ahalko da, hala egitea berariaz adosten bada, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 legearen 22.1 artikuluekin bat etorritik.

Ebazpena aldekoa bada, kopia bat bidali beharko zaie bai LSOINi (396/2006 EDaren I. xedapen gehigarria) bai enpresa erregistratua dagoen tokiko lan-agintaritzari, lan-plana onartu duena beste lan-agintaritzak bat izan bada.

1.4. Nahitaezko txostenak:

Aipatutako 396/2006 EDaren 12.2 artikulua dioenez, espedientean *nahitaez* sartu beharko dira bai Lan Ikuskatzailearen txostena bai OSALANena.

Horrez gain, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 legearen 22.1.d artikuluekin bat etorritik, hala egitea berariaz adosten eta jakinarazten bada, nahitaezko txosten horien eskakizunak atzeratu egin ditzake lan-planaren ebazpena eta jakinarazpena, hiru hilabetez gehienez, eskakizuna egin eta interesdunei helarazten zaienetik txostena jasotzen den bitarteko aldiak. Azken hori ere jakinarazi beharko zaie interesdunei.

2. Administrazio publikoen arteko datu-trukea:

2.1. Amianto erregistroetan egindako idazpen guztien kopiak bidaliko dira LSOINen erregistroetara, bertan amiantoak sortutako arriskua duten enpresen erregistroa egongo da eta (aipatutako 396/2006 EDaren 17.1 artikulua).

2.2. Plan bat onartzeko ebazpena eman ondoren, hura onartu duen lan-agintaritzak lehenbailehen helarazi beharko dio ebazpen hori bai LSOINi (396/2006 EDaren I. xedapen gehigarria) bai enpresa erregistratua dagoen tokiko lan-agintaritzari, lan-plana onartu duena beste lan-agintaritzak bat izan bada (396/2006 EDaren 12.3 artikulua).

2.3. Amiantoaren eraginpean dauden lanen arriskua ebaluatzeko datuak erregistratzeko fitxak jasotzean, lan-plana onartu duen lan-agintaritzak lehenbailehen helarazi beharko die ebazpen hori bai LSOINi (396/2006 EDaren I. xedapen gehigarria) bai enpresa erregistratua dagoen tokiko lan-agintaritzari, lan-plana onartu duena beste lan-agintaritzak bat izan bada (396/2006 EDaren 12.3 artikulua).

2.4. Enpresa batek esposizioa bukatu zenetik 40 urte igaro baino lehen jarduna bukatzen badu, lehenbailehen helarazi beharko dizkio lan-agintaritzari ingurumen-kontrolei eta -ebaluazioei buruzko datuak, langileek jasandako esposizioari buruzko datuak eta langileen osasunaren monitorizazio espezifikoari buruzko datuak. Historia medikoen kasuan, lan-agintaritzak, horiek jaso ostean, osasun-agintaritzara bidaliko ditu kopiarik



gorde gabe, eta azken horrek gordeko ditu informazioaren konfidentzialtasuna bermatuz (aipatutako 396/2006 EDaren 18.4 artikulua).

3. Lan-planen motak:

3.1. Lan-plan orokor bakarrak:

3.1.1. Aplikagarria den araudia:

396/2006 EDaren 11.4 artikulua dioenez, iraupen laburreko lanak direnean eta izaera irregularra dutenean edo ezin direnean aldez aurretik programatu, bereziki mantentze-eta konpontze-lanetan, enpresaburua ez da lan bakoitzerako lan-plan bat aurkeztera behartuta egongo, eta lan-plan orokor bakar bat aurkeztu ahalko du haien orde. Plan orokor horretan, enpresak egin ohi dituen mota jakin bateko jarduerak jasoko dira, eta haiek garatzean kontuan hartu beharreko zehaztapen guztiak aipatuko dira. Hori bai, lanetako baldintzak nabarmen aldatzen badira, plan hori eguneratu egin beharko da.

3.1.2. Definizioa:

Lan-plan orokor bakarra inguruabar berezietan soilik erabiliko da; hots, aurreikuspen-gabezia eta urgentzia direla eta lan-plan espezifiko bat egitea egokia edo egingarria ez denean (LSOINen Gida Teknikoa).

Ildo horretan, honela dio Auzitegi Gorenak doktrina bateratzeko kasazioan emandako otsailaren 22ko 172/2002 epaiak: “(...) arau orokorra da, EDan jasota datozen lanetako edozeini ekin baino lehen, enpresaburuak dekretuan xedatutakoekin bat datorren lan-plan bat aurkeztu behar duela (...) plan orokorraren salbuespenezko izaerak, ordea, bereziki laneko arriskuen prebentzioa jokoan dagoen arlo honetan, interpretazio murriztailea egitera behartzen gaitu (...). **Plan orokorra lanen iraupena laburra denean soilik izango da onargarria, jarduera irregularra den edo hura aldez aurretik programatzea posible den ala ez kontuan hartu gabe** (...) Epaimahai honek, Ministerio Fiskalak emandako txostenarekin bat etorriz, uste du errekurritutako epaiak duela doktrina zuzena; izan ere, salbuespenezko araua aplikagarria izateko eratze-premisa lanak iraupen laburrekoak izatea da (...) hots, aurreikusi behar da **jardueraren iraupena 1 egunekoa izango dela –horretan lanorduak 4 izanik– eta baldintza horietan langile guztiek batera gehienez 16 orduz lan egingo dutela, 396/2006 EDaren 4.1 artikuluan ezarrita dauden amiantoaren eraginpean egoteko gehienezko mugekin bat etorriz,** (...) larrialdi edo ezbeharren ondoriozko lanak ezin badira iraupen laburrekotzat hartu –iraupena da salbuespena aplikatu ahal izateko 396/2006 EDaren 11.4 artikuluan jasota datorren eratze-baldintza– argi dago errekurritutako epaia zuzenbidearen araberakoa dela, eta, horrenbestez, arestian aipatu bezala, doktrina zuzena duela (...)”

Urgentzia eta larrialdi arrazoiak direla eta, lan-plan orokor baten iraunaldia ez balitz behar bestekoa, plana behar adina luzatzeko eskaera bat egin beharko da, urgentziari edo larrialdiari aurre egiteko behar beste denbora eskuratzeko, alegia. Ondoren, lan-plan espezifiko bat aplikatu beharko da egon litezkeen desamiantatze-lanetarako.

3.1.3.: Aplikagarriak diren suposizio praktikoak:

Hona hemen LSOINen Gida Teknikoaren arabera lan-plan orokor bakarria izan dezaketen lan batzuk:

- Ur-horniketako sareetan, instalazio industrialetan, ontzioletan eta abar egiten diren mantentze- eta konponketa-lanak. 396/2006 EDaren 10. artikuluan jasotakoa aplikatu nahi izanez gero, zer enpresa nagusiri aplikatu ahal zaion/zaien adierazi beharko da, bai eta zer material amiantodun zehatzekin egingo duten lan ere. Larrialdi-egoeretan –azkar jokatzeari beharrezkoa denetan– eraikinak material amiantodunak aldeztu aurretik kendu gabe eraisten direnean. Ezbehar eta/edo larrialdien ondoriozko berehalako lanak. Hondakinak biltzea eta garraiatzea. Hondakindegietako lanak.
- Material amiantodunak identifikatzeko analisiak eta saiakuntzak. Material amiantodunak identifikatu ahal izateko materialetatik laginak hartzea beharrezkoa den kasuak. Airearen monitorizazioa eta kontrola, eta 3.2. artikuluan jasota egon arren, lan-planetik salbuetsita egoteko baldintzak betetzen ez dituzten beste egoera batzuk.
- Material amiantodun ez-hauskorren kantitate txikiak manipulatu edo kendu behar diren iturgintza-, argigintza- eta igeltserotza-lanak; eraikuntza-lanetan, langileek, adibidez, fibrozementuzko hodiak, plaka solteak edo bestelako elementuak aurkitzen dituztenean; leku irekietan kontrolik gabe (edo legez kanpo) isurketak egitearen ondorioz amianto-zementuaren edo beste material ez-hauskor batzuen hondarrak, adibidez, amianto-binilozko lauzak, dauden tokietan egiten diren lanak.

Honako lan hauei, ordea, ezingo zaie lan-plan orokor bat aplikatu; horren ordez, segidako lan-plan bat aplikatuko zaie: fibrozementuzko estalkiak edo hoditeriak kentzeko lan txikiak, maiz egingo badira, adibidez, lursail bat urbanizatzeko edo prestatzeko lanetan edo plan sektorial bat moldatzean, nahiz eta irregulartasunari eta iraupen laburrari loturiko baldintzak bete.

3.1.4. Edukia:

396/2006 EDaren 11.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, lan-plan orokor bakar batek artikulatu horretan aipatzen diren alderdi guztiak hartu beharko ditu barne. Batzuk, ordea, benetako lan-baldintzei buruzkoak batik bat, ezin izaten dira aurretiaz jakin, eta hortaz, datu horiek geroago jakinaraziko dira jardueraren hasieraren berri emateko fitxan. Hona hemen planean sartu beharreko datu batzuk: *lan-plan orokor bakarrak hartzen duen aplikazio-esparruaren barruan zer toki zehatzetan egingo diren lanak; hasiera-data; aurreikusitako iraupena etab.*

3.1.5. Lan-prozedura.

Ikusi eranskin atxikia.

3.1.6. Izapidetzea, jarraipena eta kontrola. Lanen hasiera jakinaraztea:

Ikusi Administrazio-jardunari, Lan-planaren kontrolari eta jarraipenari buruzko gainerako atalak.

3.1.7. Lan-plan orokor bakarria eguneratzea:

Aipatutako 396/2006 EDaren 11.4 artikulua dioenez, lanetako baldintzak nabarmen aldatzen badira, lan-plan orokor bakar hori eguneratu egin beharko da.

Horretarako, lan-plan orokor bakar horren eguneraketa onartzeko eskatu beharko dio enpresak lan-agintaritza eskudunari. Ez bada hala gertatzen, hasieran jasotako ebazpenaren baliozkotasuna eta eraginkortasuna galdu egingo dira.

3.1.8. Lan-plan orokor bakarria iraungitzea:

Alde batetik, lan-prozedurak etengabe hobetuko direla eta teknologiaren garapenera egokitu direla bermatzeko, eta bestetik, aplikagarria den eta indarrean dagoen araudia beteko dela ziurtatzeko, bereziki, amiantoaren eraginpean dauden langileen eta desamiantatze-lanetan parte hartzen ez duten hirugarrenen osasuna monitorizatzeari dagokionez, onartu eta hiru urtera iraungiko dira lan-plan orokor bakarrik.

3.2. Lan-plan espezifikoa:

3.2.1. Aplikagarria den araudia:

Aipatutako 396/2006 EDaren 11.1 eta 12.1 artikuluen arabera, errege-dekretu honen aplikazio-eremuan jasotzen diren lanei dagokienez, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duen edozein lanekin hasi aurretik, enpresaburuak lan-plan bat egin behar du; hargatik eragotzi gabe, 3.1.2 puntuan deskribatzen den baldintza egiaz betetzen bada, lan-plan orokor bakarria baliatzea.

3.2.2. Definizioa:

Lan-plan espezifikoa lan-plan mota bat da, eta egitekoa den jarduera zehaztasunez deskribatzeaz gain, hura gauzatuko den baldintza berezietara egokitutako lan-prozedurak zehazten ditu (LSOINen Gida Teknikoa).

Hona hemen, adibide gisa, lan-plan espezifikoa bat izan dezaketen zenbait lan: fibrozementuzko estalki izurtuak eta elkarri lotuak kentzeko lanak; suaren kontrako babes moduan erabilitako amianto lantoki batetik kentzeko lanak; oro har, amianto hauskorrarekin egiten diren lan gehienak, arrisku-maila handia dela eta (LSOINen Gida Teknikoa).

3.2.3. Edukia:

Aipatutako 396/2006 EDaren 11.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, *lan-plan espezifikokoak aipatutako alderdi guztiak zehaztu behar ditu; hala ere, alderdiotako batzuk –bereziki, aurretiaz jakin ezin diren benetako lan-baldintzei buruzko datuak– aurrerago jakinarazi eta zehaztu ahal izango dira jarduera-hasiera jakinarazteko fitxan.* Zehazki,

alderdi hauek: lanen hasiera-data zehatza, iraupena, zer langilek esku hartuko duen, etab.

Lan-plan espezifikoaren eredu normalizaturik ez dagoen arren, gomendagarria da aipatu diren datuak ahalik eta ulerterrazen aurkeztu eta egituratzea administrazio- eta egikaritze-faseetan erraz aztertutak izan daitezen.

3.2.4. Lan-prozedura:

Ikusi eranskin atxikia.

3.2.5. Izapidetzea, jarraipena eta kontrola. Lanen hasiera jakinaraztea:

Ikusi administrazio-jardunari, Lan-planaren kontrolari eta jarraipenari buruzko gainerako atalak.

3.2.6. Iraungitzea:

Alde batetik, lan-prozedurak etengabe hobetuko direla eta teknologiaren garapenera egokitu direla bermatzeko, eta bestetik, aplikagarria den eta indarrean dagoen araudia beteko dela ziurtatzeko, bereziki, amiantoaren eraginpean dauden langileen eta desamiantatze-lanetan parte hartzen ez duten hirugarrenen osasuna monitorizatzeari dagokionez, lan-plan espezifikoa hura onartu eta urtebetera iraungiko da, epea luzatzeko eskaera arrazoiturik egin ezean.

3.2.7. Segidako lan-plana:

3.2.7.1. Aplikagarria den araudia:

396/2006 EDaren 11.3 artikulua *segidako lan-plan bat izapidetzeko aukera jasotzen du; plan hori lan-agintaritzari aurretik aurkeztu zaizkion planetan jasotakoari lot dakioke aldaketarik izan ez duten datuen kasuan.*

3.2.7.2. Definizioa:

396/2006 EDaren 11.3 artikulua arabera, enpresek segidako lan-plan bat balia dezakete. Haien helburua dokumentu-karga eta horiek aurkezteak dakarren lana arintzea da, eta erreferentziako lan-plan bakar bati lotzen zaie. Planak, halaber, lan-agintaritzaren barruko administrazio-lana ere azkartzen du.

Lan-agintaritzak aurretik onartutako beste lan-plan espezifiko batean dagoeneko jaso diren eta aldaketarik izan ez duten datu jakinei lotzen zaien lan-plan espezifikoa da segidako lan-plana, eta lan-agintaritza berari aurkeztu behar zaio. Hortaz, lan-agintaritza berak izapidetu eta onartu behar ditu segidako lan-plana eta erreferentziako lan-plan espezifiko onartua.

3.2.7.3. Aurkezteko baldintzak. Edukia:

396/2006 EDaren 11. artikuluko 2. eta 3. puntuen arabera:

I.) –Segidako lan-plana erreferentziako lan-planean jasotzen diren hainbat alderdiri lot dakieke, baldin eta alderdiok aldaketarik izan ez badute –bestela, ezin izango da hala

egin—. Horretarako, administrazio-espedientearen zenbakiaren bidez identifikatuko da erreferentziako lan-plana. Hona hemen alderdi horiek:

- material amiantodunarekin zuzenean lanean aritu diren edo harekin kontaktuan egon diren langileen izenen zerrenda, bai eta haien lanbide-kategoria, funtzioak, trebakuntza eta lan-esperientzia ere.*
- aplikatuko diren lan-prozedurak eta horiek egingo diren lan konkretuetara egokitzeko beharrezko berezitasunak.*
- ingurunera amianto-zuntzak askatzea eta barreiatzea mugatzeko neurriak eta langileak amiantoaren eraginpean egoteko arriskua mugatzeko neurriak.*
- norbera babesteko ekipamenduak eta deskutsatze-kabinak.*
- langileei arriskuen eta neurrien gaineko informazioa ematera bideratutako neurriak.*

II.) -Nolanahi ere, segidako lan-planak datu hauek aipatu behar ditu; hots, kontu hauetan ezin izango du inolako loturarik egin erreferentziako lan-planarekin:

- lanan, maneiatu beharreko materialaren eta lanak egingo diren lekuaren deskribapena
 - hasiera-data eta aurreikusitako iraupena
 - hondakinak ezabatzeko neurriak
 - prebentziorako baliabideak
 - lan-ingurunea ebaluatzeko eta kontrolatzeko prozedura
 - erreferentziatzat hartu den lan-plan espezifiko aurrez onartuaren espediente-zenbakia
 - lana gauzatuko den lekuan bertan eta handik gertu egongo diren beste pertsona batzuei amiantoak ez eragiteko neurriak

3.2.7.4. Aplikagarriak diren suposizio praktikoak:

Enpresak lan-agintaritzari segidako lan-plan bat aurkeztu ahal izateko, enpresak lan-agintaritza horrexek berak aurretiaz JMJ baterako onartu dion lan-plan espezifiko bat izan beharko du eskura, eta antzeko lanetarako baliatu beharko da.

Hortaz, gomendagarria da segidako lan-plana maiz egiten den JMJ bati dagozkion lanetarako erabiltzea. Hala, enpresak dagoeneko behar bezala ebaluatu dituen lan-prozedurei jarraituko die planak, eta, ordura arteko esperientzia aintzat hartuta, EE-GB0 balioa ez dela gaindituko ondorioztatuko da (adibidez, fibrozementuzko estalkiak kentzeko lanak edo mantentze-lan programagarriak).

Segidako lan-plan egin ahalko da, egitekoa den lana edo ekintza guztiz bat badator erreferentziako lan-plan espezifikoan jasotakoarekin; azken plan horrek, halaber, zehatz deskribatu behar du zer prozedura proposatzen den lanerako, eta egokia izan behar du kasu konkretuan ere aplikatzeko. Bestela, aldaketa nabarmenak badaude, lan-plan espezifiko bat onartu beharko da.

4. Lan-planaren kontrola eta jarraipena:

4.1. Aplikagarria den araudia:

396/2006 EDaren 11.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, lan-agintaritzari aurkeztu beharreko lan-planak lanaren hasiera-data eta harentzat aurreikusitako iraupena zehaztu beharko ditu.

4.2. Amiantoa kentzeko lanak hasi aurretik:

Agintaritza eskudunak onartutako lan-plan espezifiko baten kontrola eta jarraipena egiteko, enpresak, lanen benetako hasiera-data jakin ondoren, honako hauek jakinarazi behar dizkio plana onartu duen lan-agintaritzari: lanen hasiera-data –eguna eta ordua zehaztuz–, lanentzat aurreikusi den iraupena –ordu edo egun kopurua zehaztuz, baita, azken kasu horretan, eguneko lanaldia eta atsedenaldiak ere– eta lanetan arituko diren langileen zerrenda zehatza. Telematikoki eta gutxienez lanak hasi baino hiru egun balioudun lehenago jakinaraziko dizkio datuok.

EAEko lurralde batean lan-plan orokor bakarraf aktibatuz gero, hura lurraldean bertan onartua izan ala ez, enpresak, kontrola eta jarraipena egin ahal izateko, honako hauek jakinarazi beharko dizkio lanak egingo diren lurraldeko lan-agintaritzari: lanen hasiera-data –eguna eta ordua zehaztuz–, lanentzat aurreikusi den iraupena –ordu edo egun kopurua zehaztuz, baita, azken kasu horretan, eguneko lanaldia eta atsedenaldiak ere– eta lanetan arituko diren langileen zerrenda. Telematikoki eta gutxienez lanak hasi baino hiru egun balioudun lehenago jakinaraziko dizkio datuok.

Plana erabat justifikatuta dagoen urgentziazko arrazoi batengatik aktibatzen bada, eta, ondorioz, hasiera-data ezin bada aurreko paragrafoan aipatzen den gutxieneko aurrerapenaz jakinarazi, jarduera hasi egingo dela jakin bezain laster jakinaraziko du enpresak.

EAEko lurralde historikoetako batean onartua izan den lan-plan orokor bakarra hiru lurraldeetatik kanpo aktibatuz gero, enpresak, kontrola eta jarraipena egin ahal izateko, honako hauek jakinarazi behar dizkio plana onartu duen lan-agintaritzari: lanen hasiera-data –eguna eta ordua zehaztuz–, lanentzat aurreikusi den iraupena –ordu edo egun kopurua zehaztuz, baita, azken kasu horretan, eguneko lanaldia eta atsedenaldiak ere– eta lanetan arituko diren langileen zerrenda. Telematikoki eta gutxienez lanak hasi baino hiru egun lehenago jakinaraziko dizkio datuok.

Plana erabat justifikatuta dagoen urgentziazko arrazoi batengatik aktibatzen bada, eta, ondorioz, hasiera-data ezin bada aurreko paragrafoan aipatzen den gutxieneko aurrerapenaz jakinarazi, jarduera hasi egingo dela jakin bezain laster jakinaraziko du enpresak.

Era berean, lan-plan bat onartu bada, baina ez badira aurreikusitako lanak egingo, enpresak telematikoki eman beharko dio egoeraren berri plana onartu duen lan-agintaritzari; azken horrek, halaber, berehala helaraziko dio informazioa LSOIENi eta enpresa erregistratuta dagoen tokiko lan-agintaritzari, baldin eta biak agintaritza bera ez badira.

Amiantoa kentzeko lanen hasiera jakinarazteko fitxarekin batera, enpresak honako hauek helarazi behar ditu:



-hondakin-tratamendurako kontratuaren kopia, enpresa kudeatzailearen eta hondakindegia izenekin (baldin eta aurretik atxiki ez bada edo onartu zenetik aldaketak egon badira).

-hondakinen garraiolariaren, kudeatzailearen eta hondakindegia lan-plan orokor bakar bat onartzen duen ebazpenaren kopia, baldin eta aipatutako lan-plana beste autonomia erkidego batean onartu bada (baldin eta aurretik atxiki ez bada edo onartu zenetik aldaketak egon badira).

-prebentzio-baliabidearen izendapenaren kopia, jasotako trebakuntzaren ziurtagiriarekin batera (baldin eta aurretik atxiki ez bada edo onartu zenetik aldaketak egon badira).

- EAEtik kanpo onartutako lan-plan orokor bakar bat hiru lurralde historikoetako batean aktibatuz gero, lan-plan orokor bakarraren kopia eta hura onartzeko ebazpenarena.

-nolanahi ere, EAEko lurralde historikoetako batean lan-plan orokor bakar bat aktibatuz gero, honako hauek helarazi beharko dira, aintzat hartu gabe lan-plana non onartu den:

- egingo diren lanen eta aplikatuko den prozedura zehatzaren deskribapena;
- 396/2006 EDaren 11.4 artikuluko baldintzak betetzen direla frogatzen duten agiriak;
- sustatzailearen, kontratistaren eta, hala badagokio, azpikontratistaren datuak;
- hondakin-garraiolariaren eta hondakindegia datuak;
- jarduera gauzatuko den eremuaren kokapen zehatza eta kenduko den materialaren ezaugarri zehatzak;
- lantokiaren planoaren eta argazkien kopia;
- lan-planaren egikaritzearen gaineko beste edozein informazio garrantzitsu.

4.3. Amianto kentzeko lanak amaitu ondoren:

Lanak gauzatu ondoren, enpresak telematikoki jakinarazi behar dio lan-agintaritzari (ikusi Administrazio-jardunari buruzko atala) amianto kentzeko lanen amaiera-data – administrazio-espedientea zein den zehaztuz–, eta, harekin batera, hondakinen identifikazio-agiria helarazi beharko dizkio.

Horrez gain, Amianto darabilten lanetan dagoen arriskua ebaluatzeko datuen erregistroa egiteko fitxak eta Langileen osasun-monitorizatzeko espezifikokoari buruzko datuak erregistratzeko fitxak helarazi behar ditu, 396/2006 EDaren 18. artikuluan zehazten denari jarraituz.

4.4. Fitxen ereduak:

Horretarako, idazki honi atxikitako fitxak erabiliko dira (lan-arloko sail eskudunaren webgunean ere eskuragarri).



4.5. Amiantoaren kartzeko lanetan arituko diren pertsonen zerrendan aldaketak egitea:

Lan-plana onartu ondoren aldatetarik egongo balitz amiantoaren kartzeko lanetan arituko diren pertsonen zerrendan, langile-zerrendaren gaineko datu hauek helarazi behar dira, lanen hasiera jakinarazteko fitxarekin batera: *langileen lan-kategoria, planean deskribatzen diren lanen alorreko esperientzia, prebentzioaren gaineko trebakuntza eta informazioa, osasunaren monitorizazioa, jasotako NBEak (norbera babesteko ekipamenduak) eta, halakorik balego, prebentzio-baliabidearen datuak.*

5. Datuak erregistratzea. Agiriak artxibatzea:

5.1. Egin eta eguneratuta mantendu beharreko agiriak:

396/2006 EDaren 18.1 artikuluan xedatzen denaren arabera, eta hargtik [LAPLaren HYPERLINK "https://noticias.juridicas.com/base_datos/Laboral/I31-1995.html"](https://noticias.juridicas.com/base_datos/Laboral/I31-1995.html) 23. artikuluan ezarritakoa eragotzi gabe, Errege Dekretu honen aplikazio-eremuan sartzen diren enpresak behartuta daude zenbait aquiriren fitxategiak egitera eta gaurkotuta mantentzera; zehazkiago, fitxategi hauek:

- a) Inskripzio-fitxa, amiantoaren arriskupeko enpresen erregistroan aurkeztutakoa.
- b) Onartutako lan-planak.
- c) Amiantoaren darabilten lanetan dagoen arriskua ebaluatzeko datuen erregistroa egiteko fitxak, IV. eranskinean ezarritakoaren arabera.
- c) Langileen osasun-monitorizazioa espezifikoki buruzko datuak erregistratzeko fitxak, V. eranskinean ezarritakoaren arabera.

5.2. Gordetzea:

18.1 artikuluko c eta d puntuetan zehazten diren datuak gutxienez berrogei urtez gordeko dira amiantoaren eraginpeko arriskua amaitzen denetik, eta, epe hori amaitu aurretik enpresa ixten bada, enpresak lan-agintaritzari bidaliko dizkio datuok. Historia medikoen kasuan, lan-agintaritzak, horiek jaso ostean, osasun-agintaritzara bidaliko ditu kopiarik gorde gabe, eta azken horrek gordeko ditu informazioaren konfidentzialtasuna bermatuz (396/2006 EDaren 18.4 artikulua).

5.3. Amiantoaren darabilten lanetan dagoen arriskua ebaluatzeko datuen erregistroa egiteko fitxa:

5.3.1. Aplikagarria den araudia:

396/2006 EDaren 18.2 artikuluan arabera, enpresek arestian aipatu den fitxa bidali beharko diote –pertsonetan neurketak egin izan direnean eta ez direnean– lanak gauzatuak izan diren tokiko lan-agintaritzari (lan-plan espezifikoen kasuan) edo enpresa erregistratuta dagoen tokiko lan-agintaritzari (lan-plan orokor bakarren kasuan).

Horretarako, instrukzio honi atxikitako fitxa-eredua erabiliko da (lan-arloko sail eskudunaren webgunean ere eskuragarri).



Prebentzioaren ikuspegitik, aipatutako fitxa ezinbesteko informazio-iturria da Espainian amiantoaren eraginpean egiten diren lanei buruzko informazioa izateko: batetik, enpresak JMJ bakoitzeko baliatu diren lan-prozeduren jarraipena egin dezake, eta, hala badagokio, beharrezkoa diren egokitzapenak egin; bestetik, administrazioak amiantoaren eraginpean egon diren langileen erregistro fidagarri bat izan dezake, eta, horrez gain, lan-prozeduren jarraipena egin, eta langileek lan egiten duten giroan amianto-zuntzen kontzentrazioa nolako den/izan daitekeen jakiteko informazio zehatzagoa eskuratu.

5.3.2. Lan-agintaritzari fitxak bidaltzeko epea:

Lan-plan espezifikoen kasuan, lanak gauzatzen direnetik gehienez hiru hilabeteko epean bidali behar dio enpresak fitxa lan-plan espezifikoa onartu duen lan-agintaritzari. Azken horrek informazioaren kopia bidaliko dio enpresa erregistratuta dagoen tokiko lan-agintaritzari, baldin eta biak agintaritza bera ez badira.

Lan-plan orokor bakarren kasuan, urte natural bakoitza amaitu aurretik bidali behar dio enpresak fitxa enpresa erregistratuta dagoen tokiko lan-agintaritzari.

5.3.3. Lan-agintaritzak LSOINi fitxak bidaltzea:

396/2006 EDaren lehen xedapen gehigarriaren arabera, *Laneko arriskuen prebentzioari buruzko Legearen 8. artikulua LSOINi esleitzen dizkion funtzioak behar bezala betetzeko, lan-agintaritzek institutuari bidaliko diote lan-plana onartzeko ebazpenaren kopia, baita lan-agintaritzen lurraldean erregistratuta dauden enpresen gaineko informazio guztia ere; III. eta IV. eranskinetakoak, hain zuzen.*

5.3.4. Hainbat aholku eta irizpide praktiko amiantoa darabilten lanetan dagoen esposizioa ebaluatzeko datuen erregistroa egiteko fitxa betetzeko:

LSOINen “396/2006 Errege Dekretuaren IV. eranskinean amiantoarekiko esposizioa ebaluatzeko datuak sartzean kontuan hartu beharreko zenbait alderdi” agiri teknikoaren arabera:

-fitxan jasotako datuak izendunak izango dira; beraz, lanetan aritu den langile bakoitzari buruzko datuak jaso beharko dira –lagindu diren ala ez axola gabe–, honako hauek barne: langilearen izena, NANA, Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia, jarduera mota, material mota, eguneko esposizioa, esposizio-egunak, EE (bai neurketa pertsonala egin delako, bai esposizioa mota horretako jardueren aurreko neurketen emaitzetan eta jarduera hori atxikita dagoen antzeko esposizio taldean/taldeetan oinarrituz zehaztu delako) eta NBE motak. Azken horri dagokionez, arnas babes mota eta lanerako arropa deskribatu beharko lirateke ahalik eta xehetasun handienaz, eta “egokiak”, “lan-planean adierazitakoak” eta antzeko deskribapenak ekidin behar dira.

-lan-plan orokor bakarrei dagokienez, fitxa bakarra edo jarduera mota bakoitzeko fitxa bana bidal daiteke, eta honakoak jaso behar dira: lanetan aritu diren langileen izenak, lanegun-kopurua eta EE-balioa.



-hirugarrenen esposizioa eragin dezaketen material amiantoduna darabilten lanak amaitzean, eta lan-ingurunea eta deskutsatze-indizea kontrolatzeko helburuarekin, gomendagarria da ingurune-neurketa estatikoaren emaitzak jasotzen dituen higiene-txostenaren atala atxikitzea, puntu jakinetan egiten diren ingurumen-kontzentrazioen neurketak ez baitira eguneko esposizioaren kalkulua egiteko erabiltzen.

-fitxak betetzeari dagokionez, enpresaren prebentzio-erakundeko lan-arriskuen prebentzioko teknikariak edo AAEEen dagoen enpresako arduradunak bete behar ditu, fitxa nork sinatuko duen kontuan hartu gabe.

-egindako jardueraren eta jardueran erabilitako material motaren gaineko datuei dagokionez, aukerarik hurbilekoena markatu beharko litzateke, eta lanetan amiantoarekiko egon den esposizioari buruzko informazioa gehitu.

Lan-plan batek jarduera mota bat baino gehiago egitea edo material mota batean baino gehiagotan esku hartzea eskatzen badu, fitxa bakar batean eman daitezke lan-plan hori burutzeko egin beharreko lanek sortutako esposizioari ondoriozko datu guztiak; hots, langileen esposizioa ebaluatzeko datuak. Lan-plan batek amiantoa duten material mota bat baino gehiago barne hartzen baditu edota lanak fitxan jasotzen diren jarduera bati baino gehiagori lotu ahal bazaizkio, gomendagarria da lan bakoitzaren kasuan jarduerari zenbat egun eskaini zaizkion, lan-tarte horri dagokion eguneko esposizioa zein izan den eta zer NBE erabili diren adieraztea.

-ebaluazioari dagokionez, ebaluazioa nork egin duen, zuntzen analisia (zenbaketa) zein laboratoriorik egin duen eta horretarako zein metodo erabili den adierazi behar da. Lan-plan bat egikaritu bitartean ez bada neurketarik egin, antzeko jardueretarako aurretik egin diren neurketetan oinarritutako EEaren balioa jaso beharko luke fitxak; horrekin batera, esposizioaren gaineko neurketak eta kalkuluak –ebaluazio-metodologia kuantitatibo batean oinarritutakoak– egin ziren azken lan-plana zein zen adierazi behar da. Hainbat langile antzeko esposizio talde batean daudenean, guztiek EE bera dutela suposatuko da, neurketarik egin zaien ala ez kontuan hartu gabe. Gomendagarria litzateke higiene-txostenaren atala atxikitzea, bertan jasotzen baitira EE kalkulatzeko egin diren neurketen jatorrizko datuak.

-JMJ bereko bi lan-plan burutzen badira eta bata eta bestearen artean urtebete baino gehiago igarotzen bada, langileen esposizioa berriz ebaluatzea gomendatzen da. Era berean, gomendagarria da arriskuen ebaluazioan MJM bereko lehenagoko lanen neurketak erabili diren edo neurketa berriak egin diren adieraztea.

5.4. Langileen osasun-zaintza espezifikoki buruzko datuak erregistratzeko fitxa:

396/2006 EDaren 18.3 artikuluaren arabera, langileen osasun-monitorizatzeko espezifikoki buruzko datuak erregistratzeko fitxak osasun-minitorizatzear arduratzen den medikuak bidali beharko dizkio enpresa erregistratuta dagoen tokiko lan-

agintaritzari urtea amaitu aurretik. Gomendagarria da osasun-monitorizatzea egiten denetik bi hilabeteko epean bidaltzea.

Horretara, instrukzio honi atxikitako fitxa –Langileen osasun-monitorizatze espezifikoa– buruzko datuak erregistratzekoa– erabiliko da (lan arloko sail eskudunaren webgunean ere eskuragarri).

6. Amianto-hondakinak kudeatzea:

6.1. Aplikagarria den araudia:

I.) -396/2006 EDa. Honako hauek zehazten ditu amiantodun hondakinetarako:

I.) –6. artikulua arabera:

Enpresa behartuta dago prebentzio-neurri tekniko orokor batzuk hartzerantz langileek, lantokian bertan, ahalik eta esposizio txikiena izan dezaten amianto-zuntzekiko edo material amiantodunekiko, eta, betiere, 4.1 artikuluan zehazten den muga-balioetik beherakoa.

Helburu horrekin, enpresak ondo itxitako bilgarri egokietan gorde eta garraiatu beharko ditu bai amiantoa, bai amianto-zuntzak askatzen dituen materialak, bai material amiantodunak. Horrez gain, bilgarriari, arauak zehaztu bezala, etiketa jarri behar zaie, zer material daukaten adierazteko. Halaber, hondakinak ahalik eta lasterren multzokatu eta lantokitik kanpora garraiatu beharko dira ondo itxitako bilgarri egokietan, eta bilgarrietan etiketak jarri beharko dira amiantoa dutela adierazteko. Ondoren, hondakin arriskutsuei aplikatzekoa zaien araudiaren arabera tratatuko dira.

II.) -11.2.d) artikulua arabera:

Lan-planak, besteak beste, hondakinak ezabatzeko neurriak zehaztu behar ditu indarrean dagoen araudiari jarraituz, eta enpresa kudeatzailea eta hondakindegia zein diren adierazi behar du.

Beraz, goian aipatutakoari jarraituz, lan-planak honako hauek jaso behar ditu: hondakinak ezabatzeko prozedura eta horri lotutako prebentzio-neurriak; aurreikusitako hondakin-kopurua eta horien ezaugarriak; hondakinak jasotzeko, biltzeko eta etiketatzeko prozedura; hondakinen aldi baterako biltze-eremuaren baldintzak eta hondakinek bertan igaroko duten denbora; lan-eremutik biltze-eremurako zirkulazio-bideak eta, hala badagokio, hondakin-eremuan langileen edo hirugarrenen zirkulazioa ekiditeko neurriak; hondakinak kudeatuko dituen enpresa, garraio-enpresa eta helmuga-hondakindegia eta, halakorik balego, tarteko biltegiatzea.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren betebeharrak bete direla egiaztatzeko, kudeatzaileak hondakin-tratamenduaren kontratua (tarteko biltegiatzea, halakorik balego; hondakindegia) eta



garraiatzailearen identifikazioa helaraziko ditu. Bi kasuetan, amiantoaren arriskupeko enpresen erregistroko zenbakia eta dagokion baimena ere adierazi behar dira.

Hondakintzat joko dira, kendu beharreko material amioantodunak ez ezik, baita biltegitratutakoak edota erabileraz kanpoko daudenak eta lanetan erabilitako materialak (musukoak, osoko jantziak, iragazkiak etab.) ere.

II.) -105/2008 EDa, otsailaren 1ekoa, eraikuntza-eta eraispen-hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen duena.

ED horren laugarren xedapen gehigarriak honela dio: *"ED honetan hondakinei buruz xedatutakoaz gain, martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretua, Amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena, hartuko da aintzat, amianto-zuntzen edo material amiantodunen eraginpean egotea edo horretarako arriskua eragiten duten jardueretan eta lanetan dabiltzan langileen jasaten duten arriskua prebenitzeari dagokionean.*

III.) -7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

6.2. Hondakinak garraiatzea:

6.2.1. Aplikagarria den araudi espezifikoak:

I.) 97/2014 Errege Dekretua, otsailaren 14koa, Espainiako lurraldean zehar salgai arriskutsuak errepidez garraiatzeko lanak arautzen dituena.

Horretan jasotzen denez, Salgai arriskutsuen errepidezko garraioari buruzko Europako akordioaren bertsio zuzendua aplikatu behar zaie oso-osorik Espainiako lurraldean gauzatzen diren garraio-lanei, I. eranskinean jasotako berezitasunekin. Era berean, nazioarteko akordio bilateral eta multilateraletan jasotzen diren arauak aplikatuko zaizkio barne-garraioari, akordiook, Salgai arriskutsuen errepidezko garraioari buruzko Europako akordioan xedatzen denaren arabera, Espainiak ere sinatu dituenean. Ibilgailuen fabrikazioari eta ekipamenduari dagokienez, ezin izango da Salgai arriskutsuen errepidezko garraioari buruzko Europako akordioan zehazten diren baldintza edo betekizunak baino zorrotzagorik eskatu.

Beste alderdi batzuen artean, honako hauek arautzen ditu: *garraio-lanei buruzko arauak; garraio-ibilgailuei, ontzi eta bilgarriei, solteko produktuetarako ontzi handiei, bilgarri handiei eta solteko produktuetarako edukiontziei buruzko arau teknikoak; matxura eta istripuetarako arauak; zamalanak, etab.*

Hirugarren xedapen gehigarriak honako hau zehazten du hondakin arriskutsuen garraioari dagokionez: *errege dekretu honetan ezarritakoa eragotzi gabe, hondakin arriskutsuak, gainera, hondakin arriskutsuak biltzearen, etiketatzearen eta lekualdatzearen alorrean aplikatzekoak diren arau espezifikoaren arabera*

erregulatuko dira. EDaren II. eranskinean ezartzen da salgai arriskutsuekin zamalanetan egin behar diren egiaztapenen zerrenda.

II.) –553/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duena. Bertan jasotzen dira, besteak beste, lekualdatzeek bete beharreko baldintza komunak; horien artean, hondakin-tratamendurako kontratuaren edukiak (5. artikulua) eta identifikazio-agiria izapidetzeko beharra –lehengo kontrol- eta jarraipen-agiria ordeztzen duena– (6. artikulua), azken hori agintaritza eskudunari aldeztu aurretik jakinarazi behar zaion kontuan hartu gabe.

6.2.2. Lan-arloko sail eskudunaren baimen administratiboa:

Enpresak garraio-jarduera garatzeko beste administrazio-baimen batzuk behar dituen ala ez kontuan hartu gabe, idazki honen ondorioetarako, AAEEen erregistratuta egon beharko da hura. Horrez gain, garraio-jarduerarako lan-plan orokor bakar bat eduki beharko du prest, lan-agintaritza eskudunak onartutakoa (396/2006 EDaren 3.1.f artikulua).

6.3. Hondakin arriskutsuen tarteko biltegiatzea:

6.3.1. Aplikagarria den araudi espezifikoa. Definizioa.

Uztailaren 7ko 646/2020 EDak, Hondakinak hondakindegietan biltegiatuta ezabatzea arautzen duenak, eta apirilaren 8ko 7/2022 Legeak, Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoak –azken honek 21.a) artikuluan–, zehazten dutenaren arabera, honako hau da hondakin arriskutsuen tarteko biltegiatzea: hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegiatzea, ekoizpen-gunearen barruan nahiz kanpoan, hondakinak biltegiatze-gunean uzten hasten denetik gehienez ere sei hilabeteko epean (hala ere, epea salbuespenez luzatu ahal izango da, agintari eskudunei hala eskatuta). Goian aipatutakoaren arabera, Etxeko Hondakinen eta Hondakin Asimilagarrien Gaikako Bilketarako Zentroek (Garbigune) tarteko biltegiatzerako balio dute, araudi espezifikoaren arabera hondakin edo material amiantodunak onartzen dituzten kasuetan edo, berariaz onartu ez arren, praktikan halako hondakinak jasotzen dituzten kasuetan, etiketek eta bilgarriek hala adierazi ez arren.

6.3.2. Lan-arloko sail eskudunaren baimen administratiboa:

Enpresak garraio-jarduera garatzeko beste administrazio-baimen batzuk behar dituen ala ez kontuan hartu gabe, idazki honen ondorioetarako, amiantoaren arriskupeko enpresen erregistroan erregistratuta egon beharko da hura. Horrez gain, garraio-jarduerarako lan-plan orokor bakar bat eduki beharko du prest, lan-agintaritza eskudunak onartutakoa (396/2006 EDaren 3.1.f artikulua).

6.4 Hondakindegia:



6.4.1. Aplikagarria den araudi espezifikoa. Definizioa:

646/2020 EDak, uztailaren 7koak, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta ezabatzea arautzen duenak, 2.i) artikuluan xedatzen duenez, hondakindegizat jotzen dira *hondakinak gainazalean edo lur azpian utziz ezabatzeko instalazioak*.

Horiez gain, hondakindegizat jotzen dira *hondakin arriskutsuak ekoizpen-gunearen barruan nahiz kanpoan sei hilabetetik gorako epean –horixe da hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegitratzerako gehieneko epea– biltegitratzen dituzten instalazioak; hondakin ez arriskutsuak ekoizpen-gunearen barruan nahiz kanpoan urte batetik gorako epean –hondakinak gerora ezabatu egingo direnean– eta bi urtetik gorakoan –hondakinak gerora balorizatu egingo direnean– biltegitratzen dituzten instalazioak*.

Ez dira hondakindegizat jotzen, *batetik, hondakinak deskargatzeko instalazioak, eta bestetik, hondakinak beste instalazio batzuetara garraiatu aurretik prestatzeko instalazioak, beste instalazio horietan balorizatu, tratatu edo ezabatzeko –transferentzia-zentroak edo tarteko biltegitratze-zentroak–*.

646/2020 EDaren 5. artikuluaren arabera, honela sailkatzen dira hondakindegia: *hondakin arriskutsuen hondakindegia; hondakin ez-arriskutsuen hondakindegia eta hondakin inerteen hondakindegia*; hala ere, hondakindegia bera kategoria bat baino gehiagotan sailka daiteke, baldin eta beharrezko baldintzak betetzen dituzten gela banatuak baditu. Amianto hauskorra duten hondakinak, eraikuntzarako materialenak izan ala ez, hondakin arriskutsuen hondakindegietan utzi behar dira, eta, salbuespen gisa, hondakin ez-arriskutsuen hondakindegietan (adibidez, behar bezala kapsulatutako material ez-hauskorra), baldin eta aurrez zenbait baldintza betetzen badira.

6.4.2. Lan-arloko sail eskudunaren baimen administratiboa:

Hondakindegia-jarduera garatzeko beste baimen administratibo batzuk behar izan arren, instrukzio honen ondorioetarako, AAEEen erregistratuta egon beharko da ustategiko titularra. Horrez gain, hondakindegia-jarduerarako lan-plan orokor bakarra eduki beharko du prest, lan-agintaritza eskudunak onartutakoa, (396/2006 EDaren 3.1.g artikulua).

6.4.3. Hondakindegia baimenduen zerrenda:

Esteka honetan ikus daiteke ingurumen-alorreko sail eskudunak EAEn baimendutako hondakindegien zerrenda:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/hondakinen-ekoizpen-eta-kudeaketaren-erregistroa/web01-a2inghon/eu/>



AMIANTO-ZEMENTUZKO ELEMENTUEN BALIO-BIZITZA LUZATZEA:

1. Definizioa:

Amianto-zementuzko elementu baten balio-bizitza luzatzeko jardueratzat hartzen da elementu bat antzeko beste batez estaltzeko egiten den jarduera, normalean, arrazoi ekonomikoengatik eta denborak propietateetan eta funtzioak betetzeko ahalmenean eragindako galera kontuan hartu gabe, (adibidez, amianto-zementuzko estalki zahar bat metalezko edo beste material bateko bigarren estalki batekin bikoiztea, bigarrena lehenaren gainean jarritz; hodiak erretxinekin, polimeroekin edo antzekoekin konpontzea, etab.).

Hain zuzen ere, amianto-zementuzko estalkiak bikoizteko aipatu den aukera hori ez da egokitzen jotzen kasu hauetan:

- balio-bizitza iraungi direnez, estalkiak egoera txarrean daudenean; izan ere, estalkiak kendu egin beharko lirатеke. Ildo horretan, estalki baten balio-bizitza bukatutzat emango da estalkiak bere funtzioak (urarekiko edo haizearekiko irazgaiztasuna, energiaren bilketa/disipazioa, konfort hidro-termiko, akustiko eta luminikoa, egiturazko segurtasuna eta suaren aurkako segurtasuna eta iraunkortasuna). betetzeari uzten dionean.

- egoera onean dauden estalkien kasuan, erabilitako teknikak arazoak sortu dituenean.

Arestian aipatutakoa, beraz, amianto-zementuzko materiala bikoiztea, estaltzea edo antzekorik egitea eskatzen duen beste edozein lani ere aplikatuko zaie; adibidez, *eguzki-panelak edo antzeko elementuak estalkien, ibai-hormen, paramentu bertikalen, hodien, kanalizazioen edo zuntz-zementu amiantodunezko beste elementu batzuen gainean jartzeko lanei.*

Deskribatutako lan guztiak gauzatzeko, langileek, zuntz-zementuzko plakak dauden eremuan sartu ez ezik, plaken artean igaro eta horiekin lan egin behar dute. Halaber, horiek manipulatu, zulatu eta moztu egin behar dituzte; ondorioz, amianto-zuntzak barreiatzen dira ingurunean, eta langileentzako, osasun publikorako eta ingurumenerako arriskua dakar horrek. Aipatu diren lanetan, gainera, produktu amiantodunak eraldatu egiten dira, eta aplikagarria den araudiaren arabera, debekatuta dago jarduera hori.

2.-Amianto-zementuzko elementuen balio-bizitza luzatzeko debekua:

Lan-agintaritzak honek uste du, goian aipatutakoaren nahiz 396/2006 EDaren 4.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ez litzatekeela baimenik eman beharko amiantoaren duten jatorrizko elementuen balio-bizitza modu artifizialean luzatzeko, non eta ez den behar bezala frogatzen aldi baterako salbuespen- edo larrialdi-egoera bat dela.

Aurreko paragrafoan aipatutakoa, ekintza hauen edo antzekoen kasuan aplikatuko da: *estalkiak bikoizteko lanak, eguzki-panelak edo antzeko elementuak estalkien, ibai-hormen, paramentu bertikalen, hodien, kanalizazioen edo zuntz-zementu amiantodunezko beste elementu batzuen gainean jartzeko lanak, etab.*

Era berean, lan-agintaritza honen iritziz, eraikin batean produktu amiantodunik ez dagoela egiaztatzen duen agiririk egon ezean, AAEEen erregistratuta dauden eta lan-agintaritza eskudunak onartutako lan-plan bat daukaten enpresek egin beharko dituzte jarraian aipatzen diren ekintza edo lanak: *estalki, hodi edo erreten bat kentzeko edo hura, osorik edo zati batean, amiantorik ez duen beste berri batengatik ordezteko lanak; estalkiak, hodiak edo erretenen mantentze- edo konpontze-lanak; itogin bat konpontzeko lan puntualak; luminaria bat ordezteko lanak; erretenen garbiketa-lanak; aipatutako ezaugarriak dituen eraikin batean egitekoak diren antzeko beste lan batzuk.*

**BERE KARGURA ENPLEGATURIK EZ DUEN LANGILE AUTONOMOA:**

Langile autonomotzat jotzen da modu ohikoan, pertsonalean, zuzenean, bere kontura eta beste pertsona baten zuzendaritza- edo antolakuntza-eremutik kanpo jarduera ekonomiko edo profesional bat irabazi-asmoz egiten duen pertsona fisiko oro (20/2007 Legea, uztailaren 11koa, Lan autonomoaren Estatuari buruzkoa, 1.1 artikulua). Langile autonomoak besteren konturako langileak enplegatuz gero, enpresaburua izango da hura eremu juridikoan.

Atal honetan bere kargura enplegaturik ez duen langile autonomoaren erregulazioa garatuko dugu.

I.) Aplikagarria den araudi orokorra:

Norberaren konturako lana uztailaren 11ko 20/2007 Legean, Lan autonomoaren estatutuari buruzkoan, arautzen da. Beraz, langile autonomoa edo norberaren konturako langilea ez dago lan-arloko legeriaren mende (Langileen Estatutuko lehen xedapen gehigarria); eta horrenbestez, ez eta lan-arriskuen prebentzioko araudiaren mende ere, besteren konturako lana baita azken horren aplikazio-eremua (LAPLaren 1. artikulua).

“Legezko manu batek espresuki xedatzen” dituen kasuetan, araudi horren zenbait alderdi salbuetsita geratzen dira, LAPLaren 3.1 artikulua adierazi bezala. Honelaxe dio legeak: “Lege hau eta berau garatzeko arauak aplikatuko dira, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginak araututako lan-harremanen esparruan, eta administrazio publikoen zerbitzupean dauden langileen administrazio edo estatutu-izaerako harremanen esparruan, lege honek edo hori garatzen duten arauak halakoetan jaso berezitasunak aintzat hartuta. Horrek guztiak ez dio kalterik egingo fabrikatzaile, inportatzaile eta hornitzaileentzat ezarritako betebeharrak betetzeari, ezta langile autonomoentzat erator daitezkeen eskubide eta betebeharrak betetzeari ere. Orobat, lege hau eta berau garatzeko arauak aplikatuko zaizkie kooperatiba-sozietateei, horien arautegi bereziak dituen berezitasunak kontuan hartuta; kooperatiba horiek izango dira halakoei aplikatu beharreko legeriaren arabera eraturakoak, eta lan pertsonala egiten duten bazkideak dituztenak. Halaber, lege honetan langileak eta enpresaburuak aipatzen direnean, horietara bilduko dira, hurrenez hurren, batetik, administrazio edo estatutu-izaerako harremanak dituzten langileak eta horien zerbitzuak jasotzen dituen administrazio publikoa, lege honetako hirugarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera, eta, bestetik, aurreko paragrafoak aipatu kooperatibetako bazkideak eta horien zerbitzuak jasotzen dituzten kooperatiba sozietateak”.

Bere aldetik, 396/2006 EDak honako hau zehazten du 1.1 artikuluan: *Errege Dekretu hau Lan Arriskuak Prebenitzeko Legearen baitakoa da, eta haren helburua da segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzea, lanean amiantoaren eraginpean jarduteko arriskutik langileak babesteko, baita arrisku horiek prebenitzeko ere. Horrenbestez, aztergai ditugun amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanak arautzen dituen lege-corpusa, printzipioz, ez da aplikagarria bere kargura soldatapeko enplegaturik ez duten langile autonomoen kasuan.*

Ondorioz, bere kargura soldatapeko enplegaturik ez duten langile autonomoak ezin dira AAEn erregistratu, lan arriskuak prebenitzeko legearen eta haren garapen-arauen aplikazio-eremutik kanpo baitaude.

Arrazoi bera dela medio, bere kargura soldatapeko enplegaturik ez duten langile autonomoek amiantoarekin egiten duten lanak ez du alde aurreko administrazio-baimenik behar; hau da, amiantoarekin lan egiten duten langile autonomo horiek ez daude behartuta amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanen lan-plana egitera (396/ 2006 EDaren 11.1 artikulua).

II.) Bere kargura enplegaturik ez duen langile autonomoaren betebeharrak:

Inola ere ezingo da ondorioztatu aipatutako araudian jasotzen diren gutxieneko segurtasun-baldintzek ez dietela norberaren kontura lan egiten duten langileei eragiten. Hala, produktu kutsagarriak eta arriskutsuak izan daitezkeenak darabiltzaten lanetan nahitaez betetzekoa den ingurumenari eta osasun publikoari buruzko araudiaz gain, lan autonomia arautzen duen laneko arriskuen prebentzioari buruzko legedian eta eraikuntza-sektoreko araudi espezifikoan ezarritako betebeharrak eta eginbeharrak betetzen direla ikuskatu beharko da.

Lan autonomoaren estatutuaren arabera, bere kontura lan egiten duten langileek oinarrizko betebeharrak profesional hau daukate: *legeak edo sinaturik dituzten kontratuek lan-segurtasunaren eta -osasunaren arloan ezartzen dizkieten betebeharrak betetzea, baita zerbitzuak beteko diren tokian indarrean dauden arau kolektiboak betetzea ere* (20/2007 Legearen 5.1.b artikulua).

Eraikuntza-obretan, zehazki, langile autonomoak betebeharrak hauek ditu, 1627/1997 EDaren 12.1 artikulua jasotzen duenez:

- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko legearen 15. artikuluan jasotzen diren prebentzio-ekintzarako printzipioak aplikatzea, bereziki errege-dekretu honetako 10. artikuluan zehazten diren lan edo ekintzak garatzean.
- Obra egikaritu bitartean errege dekretu honen IV. eranskinak segurtasun- eta osasun-arloan zehazten dituen gutxieneko xedapenak betetzea.
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko legearen 29. artikuluko 1 eta 2 atalek arrisku-prebentzioaren arloan langileentzat zehazten dituzten eginbeharrak betetzea.
- Langileak obran egiten duen jarduketa Laneko arriskuen prebentzioari buruzko legearen 24. artikuluan jasotzen diren xedapenak betetzea, -enpresaburu-jardueren koordinazioari buruzkoak- zehazten dituen betebeharrak moldatzea, eta, zehazki, prebentzio-neurri koordinatuetan parte hartzea.
- Uztailaren 18ko 1215/1997 EDak, langileek laneko ekipamenduak erabiltzearen inguruko segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenei buruzkoak, xedatzen duenaren arabera laneko ekipamenduak erabiltzea.
- Norbera babesteko ekipamendua maiatzaren 30eko 773/1997 EDak, langileek norbera babesteko ekipamendua erabiltzeari buruzko laneko osasunaren eta

segurtasunaren arloko gutxieneko xedapenei buruzkoak, zehazten duenaren arabera hautatzea eta erabiltzea.

- Obra egin bitartean, segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailearen edo, hala badagokio, zuzendaritza fakultatiboaren argibideak eta aginduak betetzea.

III.) Bere kargura enplegaturik ez duen langile autonomoa kontratatzen duen enpresaburuaren betebeharrak:

Gainera, langile autonomoa kontratatzen duen enpresaburuaren eginbeharra da lan-arriskuen prebentziorako araudia betetzen dela bermatzea. Eta, eginbehar hori beteko ez balu, enpresaburua izango da erantzulea egingo diren lan-ikuskatzailetzaren ikerketei eta kontrolei dagokienean, baita haiei dagokien zehatze-prozesuan ere.

Bestela esanda, langile autonomoa kontratatzen duen enpresaren betebeharra da hark lan-arriskuen prebentziorako araudia betetzen duela zaintzea, *kontrataturako obra edo zerbitzua langilearen jarduerari berari dagokionean* (Lan autonomoaren Estatutuko 8.4 artikulua).

Eraikuntza-obra, zehazki, langile autonomoak kontratatzen dituen kontratista edo azpikontratista oro arduratu beharko da *segurtasun- eta osasun-planean ezarritako prebentzio-neurriak behar bezala betearazteaz; hots, haiei zuzenean eta, halakorik badago, haiek kontratatutako langile autonomoei dagozkien prebentzio-neurriak* (1627/1997 EDaren 11.2 artikulua). Halaber, segurtasun- eta osasun-planean ezarritako neurriak ez betetzeak dakartzan ondorioei solidarioki erantzun beharko die.

Monitorizatzeko betebeharrak hori betetzen ez duten enpresek *beren egingo dituzte eragindako kalte-galeren kalte-ordainak, baldin eta kausazko lotura zuzena badago ez-betetzeen eta eragindako kalte-galeren artean* (20/2007 Legearen 8.6 artikulua).

Gainera, eraikuntza-obra batean 1627/1997 EDak 11.2 artikuluan jasotzen duen monitorizatzeko betebeharra betetzen ez bada, administrazio-erantzukizunak sor daitezke; izan ere, arau horren 2.2 artikulua enpresaburutzat jotzen ditu bai kontratista bai azpikontratista lan-arriskuen prebentziorako araudian aurreikusitakoaren ondorioetarako.

Obra-sustatzaileak langile autonomoak zuzenean kontratatzen baditu obra edo obrako zenbait lan egiteko, hura ere kontratistatzat joko da aurreko paragrafoan adierazi diren ondorioetarako (1627/1997 EDaren 2.3 artikulua), kontuan hartu gabe sustatzailea profesionala den (adibidez, higiezin-sustatzaile bat) edo ez (adibidez, jabeen erkidego bat).

IV.) Bere kargura enplegaturik ez duen langile autonomoa kontratatzen duen enpresaburuaren eta langile autonomoaren beraren betebeharrak:

Gainera, enpresaburuari (oro har) eta kontratistari/azpikontratistari (eraikuntza-sektorean zehazki) dagokie segurtasun-baldintzak betetzen direla zaintzeko ardura, eta, orobat, koordinatzeko eta informazioa emateko betebeharra, LAPLaren 24.2 artikuluan eta 20/2007 Legearen 8.3 artikuluan jaso bezala.

Hala, enpresaburu titularrak –eraikuntzaren kasuan, sustatzaileak edo obraren jabeak– honako hauei buruzko informazioa eman behar du: lantokiak langileentzat izan ditzakeen berezko arriskuak, arriskuok prebenitzeko neurriak eta aplikatzekoak diren larrialdi-neurriak (171/ 004 EDaren 7.1 artikulua; eraikuntza-obren kasuan, segurtasun-eta osasun-azterketaren bidez). Halaber, lanean batera dabiltzan enpresen eta autonomoen arteko informazio-trukea egon behar da lantokian gauzatzen dituzten jardueren berariazko arriskuei buruz, arriskuok lantokian batera ari diren beste enpresetako langileei eragin diezaiekete eta; zehazki, hainbat ekintza batera egitearen ondorioz areagotzen edo eraldatzen diren arriskuei buruzko informazioa trukatu behar dute (171/2004 EDaren 4.2 artikulua). Horrez gain, lan-arriskuen prebentziorako koordinazio-bitartekoak definitu behar dituzte beharrezkotzat eta egokitza jotzen dutenaren arabera (171/2004 EDaren 5. artikulua). Aipatutako eginbeharrak ez betetzeak administrazioko arau-haustea dakarkio zuzenean horren partaide izan den enpresaburu edo langile autonomo bakoitzari, arlo zibilean, penalean edo gizarte-segurantzakoan egon daitezkeen erantzukizunak kontuan hartu gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 7a

ELENA PÉREZ BARREDO

Laneko eta Gizarte Segurantzako sailburuordea

I.ERANSKINA

LAN-PROZEDURA SEGURUA:

Kontzeptua. Helburua:

Amiantoaren eraginpeko arriskuari buruzko lan-planaren barruan oso atal garrantzitsua da hau.

Lan-prozedura oro segurua izan behar da; hots, ingurura zuntzik iristen ez dela bermatu behar du, baita amiantoaren eraginpeko arriskua gutxienekora mugatzen dela ere, Horretarako, lan-ekipamendu egokiak erabili eta lan-baldintza egokiak bermatu behar dira. Material amiantoduna darabilen edozein lan edo ekintza egiten denean hartuko da kontuan atal hau, baita lan-agintaritzak onartutako lan-planik behar ez denean ere.

Izan ere, ondo diseinatu, ebaluatu eta aplikatuz gero, aipatutako prozedurak amianto-zuntzen eraginpeko arriskuak deuseztatu, murriztu edo kontrolatzeko prebentzio-neurriak barne hartuko ditu, baita jarduerak ekar ditzakeen beste arrisku batzuk deuseztatu, murriztu edo kontrolatzekoak ere. Prozedura, halaber, JMJ baterako aplikagarriak diren praktika onenetan oinarritutako tresna bat da, eta honako xehetasun hauek jaso behar ditu:

- lan edo jarduera jakin bat nola egin behar den, lanaren edo jardueraren sekuentziak deskribatuz (lantokia aurrez nola prestatu; beharrezko bitartekoak lana hasi aurretik nola frogatu; azkenik, eremuaren eta ekipamenduen deskontaminazioa nola egiaztatu, lanak amaituta langileek eta hirugarrenek amiantoaren eraginpeko arriskurik ez dutela bermatzeko).

- lana segurtasunez eta modu antolatuan egiteko beharrezkoak diren giza-baliabideak eta baliabide materialak (lan-ekipamenduak, norbera babesteko ekipamenduak, etab.).

- aurreikus daitezkeen egoeretan, larrialdietan eta istripuetan nola jardun behar den (amiantoak kendu den lekura hirugarren pertsonak nola sartu, NBEa soinean zerratela istripua izan dutenak nola lekualdatu, etab.), eta lanak egin bitartean egon diren gorabeheretan nola jardun (plaka bat hausten denean, aire-erazgailuak huts egiten duenean, eskularru-poltsa hausten denean, etab.).

Arrisku-prebentziorako bestelako neurririk egotekotan, arrisku-ebaluazioan (alturako lanak, zamarlanak, etab.) eta osasun- eta aplikatzekoa den segurtasun-planean zehaztu denarekin etorri behar dute bat. **Lan-prozedura diseinatzean, kontuan hartu behar dira amiantoaren eraginpeko arriskuak eta lanak egitean eragina izan dezaketen beste arrisku batzuk; horiek, gainera, arrisku-ebaluazioan edo osasun- eta segurtasun-planean behar den moduan jasota egon beharko dute.**



Arrisku-ebaluazioaren emaitzetan oinarrituta proposatutako prebentzio-neurriak – neurri tekniko orokorrak barne– onartu beharreko lan-planean edo lan-prozedura seguruan txertatu beharko dira 396/2006 EDaren 3.2 artikuluko ekintzak baldin badira. Prebentzio-neurri orori egiaztapenak eta kontrol-programa zorrotzak egingo zaizkie, neurriak lanaren fase guztietan eraginkorrak direla bermatzeko, eta, hala badagokio, lan-planean jasoko dira aurreikusitako jarduketak, behar bezala funtzionatzen dutela eta eraginkorrak direla egiaztatzeko.

Gomendagarria da lan-prozedurak argibide sinpleagoen bidez ere idatziz jasotzea, langileek erraz uler eta aplikatu ditzaten; oso lan sinpleak direnean, ordea, ez da zertan halakorik egin behar.

Diseinua. Lan-prozedura egokiena hautatzea:

LSOInen gida teknikoak hainbat aholku eta gomendio zehazten ditu lan-prozedura seguruak egiteko; horretarako, amiantoarekin egiten den edozein lan edo ekintzarako eskuragarri dauden hobekuntza praktikoak hartzen ditu oinarri, prebentzio-neurriak kontuan hartuz eta langileen babes bermatuz (4. eranskina). Halaber, 8. eranskinaren 3. puntuko 2. atalak informazio osagarria jasotzen du amiantoarekin egiten diren lanen prozedurak diseinatzen eta hobetzen laguntzeko.

Gutxieneko edukia:

Xehe-xehe eta modu sekuentzialean deskribatuko du etapa eta lan bakoitza nola gauzatu, beharrezko prebentzio-neurriak kontuan hartuz.

- **Hasierako etapa:** Garrantzitsua da lanak hasi aurretik horiek planifikatzea eta langileak amiantoaren eraginpean egon aurretik baldintzak ikuskatzea. Honako informazio hau jaso behar da:

- Eremuaren, lantokiaren eta ingurunearen, iraganbideen eta hondakinak biltzeko eremuaren deskribapena (argazkiekin).

- Isolamenduari, zedarritzeari, seinaleztapenari eta ekipamenduei buruzko zehaztasunak (krokisekin).

- Lan-ekipamendu zehatz guztia (behar bezala ekipatutako deskutsatze-kabina, hondakin-esklusa, erauzgailuak, xurgagailuak, erremintak, NBEak, hondakinentzako ontziak, etab.), beharrezko hornidura (elektrizitatea, ura, etab.) eta, hala badagokio, bestelako laguntza-bitartekoak (aldamioak, plataformak, babes kolektiborako eta norbanakoaren babeserako bitartekoak, etab.), horien ezaugarriak, erabilera eta deskutsatze-metodoa barne, baita horien funtzionamendua eta eraginkortasuna bermatzeko kontrol-neurriak (adibidez, konfinamendu-parametroen kontrola) ere, ekintzak eskatzen duenaren arabera (alturako lanak, eremu konfinatuak, arrisku elektrikoa, atmosfera lehergarriak).

- Ingurura amianto-zuntzak askatzeko aukera gehiago duten lanetan –bai material amiantodun hauskorrarekin edo narriatuta eta egoera txarrean dauden material amiantodun ez-hauskorrarekin egiten diren lanetan, bai

material amiantodunak moztu edo zatitu behar diren lanetan– kontrol-neurri zorrotzagoak aplikatu beharko dira; besteak beste, baliteke elementuak isolatu, barrera fisiko bat erabili edo, lan-ingurunea gainerakotik banatzeko, lana hasi aurretik konfinamendu iraunkorra egin behar izatea.

-Giza-baliabideak, ekintza bera gauzatzeko behar direnak nahiz beste lanen bat egiteko behar diren pertsonak (adibidez, lanak ikuskatzea, aireko laginak hartzea, aldarmioak muntatzea, horniduraz arduratzea, etab.); azken horiek, ahal izanez gero, lanak hasi aurretik edo kanpotik egingo dute egin beharreko lana. Hartara, amiantoaren eraginpeko lanetan zuzenean ari ez diren pertsonak lantokira sartzea ekidingo da, eta, beraz, amiantoaren eraginpeko langile-kopurua murriztuko da.

Prebentzio-neurri guztiak LAPLak jasotzen dituen prebentzio-ekintzarako printzipioei jarraituz hautatuko dira, eta arriskuen jatorriaren aurka borrokatzeko prebentzio-neurriak gailenduko dira, baita babes-neurri kolektiboak ere, norbanakoaren babeserako neurrien gainetik.

- **Tarteko etapa:** material amaintodunekin zuzenean (edo horietatik gertu) lan egitea, amiantoa darabilen lanaren eta haren kokapenaren arabera zehaztu den metodologia erabiliz.

Ekintza kontrolatzeko jarduketaren deskribapena (konfinamenduaren egiaztapenak, ke-proba, aireko kontzentrazioaren neurketak, etab.) eta aurreikus daitezkeen egoerei edota larrialdi-egoerei loturiko jarduketaren deskribapena (material amiantoduna edo konfinamendua haustea, langilea lesionatu edo zorabiatzea, amianto-zuntzak ezustean askatzea, konfinamendu aktiboko sistemen akatsak); jarduketa bakoitzaz zer pertsona arduratzen den adieraziko da.

- **Azken etapa:** Lantokia garbitzea, deskontaminatzea eta azken egiaztapena egitea (begi-ikuskapena eta deskontaminazio-indizea) eremua berriz okupatu aurretik, eta hondakinak ezabatzea.

Lan-prozedura seguruek kontuan hartu behar dute lantokia etengabe garbitzeko eta sortuz doazen hondakin amiantodunak jasotzeko beharra. Hondakinok seinaleztatutako biltze-eremu batean utziko dira, bilgarri egokiekin, ahalik eta denbora laburrenez, horiek garraiatu arte. Era berean, behar bezala deskutsatu behar dira amiantoa darabilten beste lan batzuetan erabili ahal izango diren lan-ekipamenduak (ikus tarteko biltegitratzeari buruzko atala).

Ingurunera amianto-zuntzik aska ez dadin erabili diren babes-bitartekoak behin betiko baztertu behar badira, garbiketa- eta deskutsatze-lanek –azken



egiaztapen-kontrolak barne– lantokia kutsatuta ez dagoela eta egindako lanen ondoriozko hondakin-arriskurik ez dagoela ziurtatu arte itxaron beharko da.

Deskutsatze-indizea zehaztearen bidezko azken egiaztapen bat behar den kasuetan, hura zehazteko zer metodologia erabili den eta hura alderatu eta onartzeko zer erreferentzia-balio eta irizpide aplikatuko diren jaso beharko du lan-planak. Kasu horietan, ingurumen-neurketaren emaitzak egokiak direnean baino ezin izango zaio lantokiaren ohiko ekintzari berriro ekin.

Prozedura motak:

Lan jakin eta bereziak egin behar direnean, lan-prozedura ere espezifikoa izango da. Larrialdi- eta konponketa-egoeren eta bestelako egoera berezien kasuan, prozedura orokorrari jarraituko zaio.

Lan-plan orokor bakarrak lan-prozedura orokorretan oinarrituta egongo dira, eta prozedura horietan aurreikusita egon beharko du zer material motari eta zer baldintzatan aplikatuko zaizkion. Halaber, langileen amiantoaren eraginpeko arriskua ahalik eta txikiena izango dela eta nabarmenki aldatuko ez dela ziurtatuko dute. Lan-plan orokor bakarrek lan-prozedura seguru bat baliatu behar dute; hots, arrisku-ebaluazioaren emaitzari hoberen egokitzen eta doitzen zaizkion praktika eta prebentzio-neurriak aplikatuko dituzte, 5. artikuluan jasotzen den bezala.

Egoera jakinetan (instalazioetan zenbait elementu edo osagarri konpondu edo ezabatu behar direnean edo antzekoetan) material hauskorrekin aritu behar baldin bada, gomendagarria da lan-plan orokor bakarretan proposatzen diren lan-prozedurak aurrez probatzea, aplikazio-tartearen muturreko baldintzak edo, horrelakorik ezean, baldintza okerrenak kontuan hartzen dituzten simulazioen bidez. Simulazioek, halaber, laneko erremintak eta denborak probatzeko, amianto-zuntzen aireko kontzentrazioak neurtzeko, arriskuak ebaluatzeko eta langileak prestatu eta trebatzeko balioko dute. Nolanahi ere, aurretiko jarduketa hori prebentzio-jardunbide egokia izan beharko da, eta edozein material amiantoduni eta lan-plani aplikatu ahal izango zaio.

Lan-prozedura segurua hobetzea eta berrikustea:

Prozedurak etengabe hobetzea gomendatzen da, honako hauek kontuan hartuz: egindako azken neurketen emaitzen erregistro idatzia eta eguneratua; aplikagarriak diren lan-metodoen artean onena; egoera bakoitzerako prebentzio-neurri egokienak; arriskuak minimizatzeko aukera ematen duten aurrerapen teknikoak eta eskura dauden praktika onenak aplikatzea.

Lan-prozedurari, haren baldintzei, hura gauzatzeko moduari, prebentzio-neurriei eta antzekoei loturiko faktoreren bat aldatuz gero, beste ebaluazio bat egin beharko da, aldaketa horiek esposizioaren ezaugarriak alda ditzakete eta.

Lan-prozedura segurua aldatzea:

Lanak egin bitartean, aurretiaz onartutako lan-planean sartu den lan-prozeduraren bat dagokion jarduketarako desegokia dela antzemanaz gero, lan-plana aldatzeko edo planean jasotzen den prozedura aldatzeko eskatuko zaio lan-agintaritza eskudunari, eta agirien bidez arrazoituko da lana modu seguruan nola gauzatu.

Ebaluazioak emaitzak ez badira EE-GBOaren mugetara egokitzen, kausak ikertu eta lan-prozedura aldatu beharko da, eta beharrezkoak diren hobekuntzak egin edo beste lan-prozedura bat baliatu beharko da, muga-balioarekin bat etorri, eta esposizioa ahalik eta txikiena izan dadin.

2. ERANSKINA

Amiantoagatiko arriskua duten enpresen erregistrorako eskabideen eta jakinarazpenen inprimakiak - AAEE

- AAEEan IZENA EMATEKO eskaera
- AAEEan DATUAK ALDATZEKO jakinarazpena
- AAEEko INSKRIPZIOA BERRITZEKO eskaera
- AAEEan BAJA emateko eskaera
- AMIANTOAREKIN LANEAN HASTEKO jakinarazpena
- • AMIANTOAREKIN EGINDAKO LANEN AMAIERAREN jakinarazpena
- AMIANTOAREKIN EGINDAKO LANETAN ESPOSIZIOAREN EBALUAZIOAREN DATUEN ERREGISTROAREN jakinarazpena
- OSASUNA ZAINTEZKO jakinarazpena



AAEE

AMIANTOAREN ARRISKUPEKO ENPRESEN ERREGISTROA

IZENA EMATEKO FITXA

ERREGISTRO ZI...

DATA:

ENPRESAREN IDENTIFIKAZIOA

IZENA:

SOZETATE IZENA:

IFZ:

GSNE:

EGOITZA SOZIALA:

LURRALDE HISTORIKOA / PROBINTZIA:

TELEFONO:

FAXA :

POSTA ELEKTRONIKOA:

EJSN:

ESKATZAILEAREN IZEN...

ENPRESAN DUEN KARGU

ESKATZAILEAK AGIRI HAUEK AURKEZTU DITU:

☐

ORDEZKARI IZAERA EGIAZTATZEA

☐

PREBENTZIO JARDUERAREN ANTOLAKETAREN EGIAZTAGIRIA

☐

LAN BIZITZAREN TXOSTENA ESKAERA EGIN DEN EGUNEAN

☐ENPRESAREN LEGEZKO ORDEZKARIAK AITORTZEN DU FITXA HONETAN JASOTAKO DATUAK
EGIAZKOAK DIRELA☐BAIMENA EMATEN DA AGIRI HONI ERANTSITAKO ENPRESAREN IDENTITATEARI, HELBIDEARI, TELEFONOARI
ETA POSTA ELEKTRONIKO PROFESIONALARI BURUZKO DATUAK ARGITARATZEKO

(e)n,

(e)ko

(a)ren

(e)an

Lan agintaritzaren sinadura eta zigilua

Enpresaren sinadura eta zigilua



AAEE

AMIANTOAREN ARRISKUPEKO ENPRESEN ERREGISTROA

ALDEZ AURRETIK KOMUNIKATUTAKO DATUEN
ALDAKETEN JAKINARAZPENA

ERREGISTROA

DATA:

IZENA:

IZEN SOZIALA:

IZF

GSIZ:

HELBIDE SOZIALA

LURRALDE HISTORIKOA/PROBINTZIA:

TELEFNO/

FAXA :

POSTA ELEKTRONIKOA:

:

ALDAKETA DATA

AAEEKO INSKRIPZIOA ALDATZEA

Enpresaren instalazio nagusiak inskribatuta dagoen lurralde historikoa ez den beste lurralde historiko batera lekualdatzearen komunikatutako erregistroan baja eman behako da.

ESKATZAILEAREN IZENA:

ENPRESAN DAGOKION LAN

POSTUA:

ENPRESAREN NORTASUNARI, HELBIDEARI ETA TELEFONOARI BURUZKO DATUEN
PUBLIZITATEA

BAIMENTZEN DA

...AN (e)ko (a)ren ..(e)an

Laneko agintariaren sinadura eta zigilua

Enpresaren sinadura eta zigilua

AAEE

AMIANTOAREN ARRISKUPEKO ENPRESEN ERREGISTROA



INSKRIPZIOA BERRITZEKO KOMUNIKAZIOA

ERREGISTRO ZK.:

DATA: ENPRESAREN IDENTIFIKAZIOAIZENA: SOZIJETATE IZEN IFZ: GSNE: EGOITZA SOZIALA: LURRALDE HISTORIKOA / PROBIN TELEFONOA FAXA: POSTA ELEKTRONIKO EJSN: ESKATZAILEAREN IZEN ENPRESAN DUEN KARGU ☐ ENPRESAREN LEGEZKO ORDEZKARIAK AITORTZEN DU FITXA HONETAN JASOTAKO DATUAK
EGIAZKOAK DIRELA☐ BAIMENA EMATEN DA AGIRI HONI ERANTSITAKO ENPRESAREN IDENTITATEARI, HELBIDEARI, TELEFONOARI
ETA POSTA ELEKTRONIKO PROFESIONALARI BURUZKO DATUAK ARGITARATZEKO (e)n, (e)ko (a)ren (e)an

Lan agintaritzaren sinadura eta zigilua

Enpresaren sinadura eta zigilua

Inprimaki honetan emandako datuak fitxategi automatizatu batean sartuko dira, eta legez dagokien babes-mailarekin tratatuko dira. Erabiltzaileak datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango ditu, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 11.1 artikuluan aipatzen den moduan. Fitxategiaren arduradunaren datuak honako hauek izango dira: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila (helbidea: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba).



AAEE

AMIANTOAREN ARRISKUPEKO ENPRESEN ERREGISTROA

ERREGISTROAN BAJA EMATEKO ESKAERA

ERREGISTRO ZK.: DATA: **ENPRESAREN IDENTIFIKAZIOA**IZENA: SOZietate izena: IFZ GSNE: EGOITZA SOZIALA: LURRALDE HISTORIKOA / PROBINTZIA: TELEFONOA: FAXA : POSTA ELEKTRONIKOA: EJSN: **BAJAREN DATA:****BAJAREN ARRAZOIAK**☐ ENPRESAREN JARDUERA ETETEA ☐ AMIANTOAGATIKO ARRISKUA DUEN JARDUERA ETETEA☐ INSTALAZIO NAGUSIAK BESTE LURRALDE HISTORIKO EDO AUTONOMIA-ERKIDEGO BATERA ALDATZEA☐ BESTE BATZUK (AZALDU ARRAZOIA)**AAEE_n INSKRIPZIOA ALDATZEA**ESKATZAILEAREN IZENA: ENPRESAN DUEN KARGUA:

(e)n

(e)ko

(a)ren

(e)an

Lan agintaritzaren sinadura eta zigilua

Enpresaren sinadura eta vigilia

Inprimaki honetan emandako datuak fitxategi automatizatu batean sartuko dira, eta legez dagokien babes-mailarekin tratatuko dira. Erabiltzaileak datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango ditu, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 11.1 artikuluan aipatzen den moduan. Fitxategiaren arduradunaren datuak honako hauek izango dira: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila (helbidea: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba).

AMIANTOAREN ARRISKUPEKO ENPRESEN ERREGISTROA (AAEE)

AMIANTOAREKIN LANEAN HASTEKO JAKINARAZPENA

ENPRESA:	LAN PLAN ZK.:
ERREGISTRO ZK:	HASIERA DATA:
	AMAIERA DATA:

TELEFONO ZK. ETA HARREMANETARAKO PERTSONA:

E-MAILA:

LANEN HELBIDE ZEHATZA:

(e)n,(e)ko(a)ren(e)an

Lan agintaritzaren sinadura eta zigilua

Enpresaren sinadura eta zigilua

- Behar bezala justifikatutako premiazko arrazoiak egon ezean, jakinarazpen hori gutxienez hiru egun baliodun lehenago aurkeztu beharko zaio lanak egingo diren Lan Agintaritza eskudunari.

- Jakinarazpen horrekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira, baldin eta aurretik aurkeztu ez bada edo aurkeztu zenetik aldatu bada:

- Hondakina tratatzeko kontratuaren kopia, enpresa kudeatzailea eta zabortegia jasotzen dituen.
- Garraiolariaren, kudeatzailearen eta hondakinaren zabortegiaren Lan Plan Orokor Bakarra onartzen duen Ebazpenaren kopia, beste autonomia-erkidego batean onartzen badira.
- Prebentzio Baliabidearen izendapenaren kopia, jasotako prestakuntzaren ziurtagiriarekin batera.
- Hiru lurralde historikoetako edozeinetan Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo onartutako lan-plan orokor bakar bat aktibatzen bada, lan-plan horren eta plan hori onartzen duen ebazpenaren kopia.
- **Nolanahi ere, hiru lurralde historikoetako edozeinetan lan-plan orokor bakar bat aktibatzen bada, honako hauek aurkeztu beharko dira, onartzeko lekua edozein dela ere:**
 - Egin beharreko lanen eta aplikatu beharreko prozeduraren deskribapena.
 - 396/2006 Errege Dekretuaren 11.4 artikuluko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak.
 - Sustatzailearen, kontratistaren eta azpikontratistaren datuak, hala badagokio.
 - Hondakinaren eta zabortegiaren garraiolariaren datuak.
 - Esku hartuko den eremuaren kokapen zehatza eta kendu beharreko materialaren ezaugarri zehatzak.
 - Lantokiko planoaren eta argazkien kopia.
 - Kenduko den materialaren ezaugarriak (azalera, luzera, elementu aurrefabrikatuen neurriak edo pilaketa motaren deskribapena).
 - Obra egin ondoren, modu iraunkorrean okupatuko diren lokalak edo eraikinak diren adieraztea. Erantzuna baiezkoa bada, ingurumen-laginak hartu beharko dira.

Lan-plana gauzatzeari buruzko beste edozein informazio garrantzitsu.

Inprimaki honetan emandako datuak fitxategi automatizatu batean sartuko dira, eta legez dagokien babes-mailarekin tratatuko dira. Erabiltzaileak datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezereztzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango ditu, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 11.1 artikuluan aipatzen den moduan. Fitxategiaren arduradunaren datuak honako hauek izango dira: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila (helbidea: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba).

○

AMIANTOAREN ARRISKUPEKO ENPRESEN ERREGISTROA (AAEE) AMIANTOAREKIN EGINDAKO LANEN AMAIERAREN JAKINARAZPENA

ENPRESA:	LAN PLAN ZK.:
ERREGISTRO ZK.:	HASIERA DATA:
	AMAIERA DATA:

TELEFONO ZK. ETA HARREMANETARAKO PERTSONA:

E-MAILA:

LANEN HELBIDE ZEHATZA:

(e)n, (e)ko (a)ren (e)an

Lan agintaritzaren sinadura eta zigilua

Enpresaren sinadura eta zigilua

Jakinarazpen honekin batera, hondakinak identifikatzeko agiria aurkeztu behar da.

Ohartarazten da, lanak amaitu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, amiantoarekin egindako lanen esposizioaren ebaluazioaren datuen erregistroa bidali beharko duela enpresak. Lan-plan orokor bakarren kasuan, fitxa hori urte natural bakoitzaren amaiera baino lehen bidali beharko da.

Era berean, ohartarazten da langileen osasun-zaintza espezifikari buruzko datuen erregistroa urte bakoitza amaitu baino lehen eman beharko zaiola enpresa erregistratuta dagoen tokiko osasun-agintaritzari. Komeni da osasun-zaintza egiten denetik 2 hilabeteko epean bidaltzea.

AMIANTOAREN ARRISKUPEKO ENPRESEN ERREGISTROA (AAEE)

AMIANTOAREKIN EGINDAKO LANETAN ESPOSIZIOAREN

EBALUAZIOAREN DATUAK ERREGISTRATZEA

ENPRESA:	
ERREGISTRO ZK.:	

LAN PLAN ZK.:	
HASIERA DATA:	
AMAIERA DATA:	

1. EGINDAKO JARDUERA MOTA	2. ESKU HARTUTAKO MATERIAL MOTA
☐ 1.-Amianto eta amianto duten materialak kentzea	☐ 1.- Proiektatutako amianto eta amiantozko estaldura hormetan, sabaietan eta egitura-elementuetan
☐ 2.- Amianto duten materialak mantentzea edo konpontzea	☐ 2.- Bero-isolatua
☐ 3.- Hondakinen garraioa	☐ 3.- Bestelako material hauskorak: hormak, amianto-ehunak, kartoia, feltroak, etab. (zehaztu)
☐ 4.-Hondakinak tratatzea eta suntsitzea	☐ 4.- Zuntz-zementua
	☐ 5.- Amianto-binilozko lauzak
	☐ 6.- Hauskorak ez diren beste material batzuk: masillak, pinturak, itsasgarriak, etab. (zehaztu)

3. LANGILEEN DATUAK							
LANGILEAREN IZENA	NAN	GIZARTE SEGURANTZA KO ZK.	JARDUERA MOTA (1)	MATERIAL MOTA (2)	EGUNEROKO ESPOSIZIOA (FIBRA/CM3)	ESPOSIZIO EGUNAK	EPI MOTA (4)

(1) 1. atalean emandako sailkapenaren arabera, jarduera mota bakoitzerako langileak egindako eragiketen multzoa hartuko da kontuan, eta, hala badagokio, eragiketarik garrantzitsuenak bakarrik bereiziko da.

(2) 2. Atalean emandako sailkapenaren arabera.

(3) Eguneko esposizioa zuntzetan adierazita zentimetro kubikoko: langilearen arnasketa-eremuko amianto-zuntzen batez besteko kontzentrazioa da, benetako lanaldirako denborarekiko modu haztatuan neurtuta edo kalkulaturik, eta eguneko 8 orduko lanaldi estandarri lotuta. Azalpen hori 5. artikuluko 1., 2. eta 3. paragrafoetan xedatutakoaren arabera egindako jardueren motaren azken ebaluazioa egitean zehaztutakoari dagokio.

(4) Norbera babesteko ekipamendu mota, erabili bada.

4.- EBALUAZIOA NORK EGIN DUEN:

Prebentzio-zerbitzu propioa	Kanpoko prebentzio-zerbitzua
Analisi-laborategia (zuntz-kontaketa)	Erabilitako metodoa, LSHINeko MTA/MA-051 ez bada
(e)n, (e)ko (a)ren (e)an	

Lan agintaritzaren sinadura eta zigilua

sinadura eta zigilua

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskatzailea pertsona juridikoa bada, estatutu sozialak edo eratze-akordioa.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren ziurtagiria, dagokion Gizarte Segurantzako erregimenean alta emanda dagoela egiaztatzen duena.
- RNT dokumentua (langileen izen-zerrenda), GSDNk emana, eskaeraren aurreko hilabeteari dagokiona.
- Enpresa Eraikuntzaren Sektoreko Enpresa Bermatuen Erregistroan inskribatuta dago zenbaki honekin:

Inprimaki honetan emandako datuak fitxategi automatizatu batean sartuko dira, eta legez dagokien babes-mailarekin tratatuko dira. Erabiltzaileak datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango ditu, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 11.1 artikuluan aipatzen den moduan. Fitxategiaren arduradunaren datuak honako hauek izango dira: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila (helbidea: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba).

AMIANTOAREN ARRISKUPEKO ENPRESEN ERREGISTROA (AAEE) OSASUNA ZAINTEARI BURUZKO JAKINARAZPENA

ENPRESA:		LAN PLAN ZK.:	
		HASIERA DATA:	
ERREGISTRO ZK.:		AMAIERA DATA:	

1. LANGILEAREN DATUAK			
IZEN-ABIZENAK:			SEXUA:
NAN:		GIZARTE SEGURANTZAKO ZK.:	
HELBIDEA:			
TELEFONOA:		POSTA ELEKTRONIKOA:	
JAIOTZE DATA:			EGUNGO DATA:

2.- LAN HISTORIA							
ENPRESA	JARDUERA (EJSN)	LANBIDEA (OSN)	NOIZTIK (HASIERA URTEA)	NOIZ ARTE (AMAIERA URTEA)	DENBORA (HILABETEAK)	AMIANTOAREN ERAGINPEAN	
						BAI	EZ

3.- TABAKOA KONTSUMITZEKO OHITURA				
1.- Ez du ohituraz erretzen eta ez du erre				
2. Egutero erretzen du une honetan	URTE KOP.	ZIGARROAK	ZIGARRO KOP. /EGUNEKO	
		PIPA	PIPA KOP. / EGUNEKO	
		PURUAK	PURU KOP./ EGUNEKO	
3. Egutero erretzen zuen iraganean Erretzeari utzi zion data ---/--/--	URTE KOP.	ZIGARROAK	ZIGARRO KOP. / EGUNEKO	
		PIPA	PIPA KOP. / EGUNEKO	
		PURUAK	PURU KOP./EGUNEKO	

4.- SINTOMATOLOGIA						BAI	EZ
1. EZTULA							
2. ESPEKTORAZIOA							
3. DINEA MAILA	0.	1.	2.	3.	4.		

- Disnearik ez izatea, ariketa bizia egitean izan ezik.
- Disnea azkar ibiltzean edo aldapa txiki bat igotzean.
- Adin bereko beste pertsona batzuen pasabideari eusteko ezintasuna, lauan oinez, arnasa hartzeko zailtasunagatik, edo pausoan lauan ibiltzean atseden hartu behar izateagatik.
- 100 metro inguru ibiltzean edo lauan minutu gutxiren buruan atseden hartu behar izatea.
- Disneak etxetik ateratzea eragozten dio edo janztea edo erantztea bezalako jardurekin agertzen da.



IV.- ARNAS MIAKETA FUNTZIONALA

Aireztapen-patroiaren txostena 0 1 2 3

0. Normala 1. Oztopatzailea 2. Murriztailea 3. Mistoa

2

V.- MIAKETA ERRADIOLOGIKOA

Toraxeko erradiografia (edo OTA, aurkikuntzak argiak ez badira):

Asbestosiarekin bateragarriak diren anomalien kasuan, 1980ko LANEren Nazioarteko Sailkapena erabiliko da:

VI.- EGINDAKO AZTERKETAREN EMAITZA

Aurkikuntza patologikorik gabe

Amiantoaren inguruko aurkikuntza patologikoak	Asbestosia	
	Eragin funtzionala duen pleura-fibrosi barreiatua	
	Pleura-isuri onbera	
	Atelektasia biribila	
	Fibrosi pleuraleko plakak	
Amiantoarekin lotura izan dezaketen neoplasia	Pleurako mesotelioma	
	Peritoneoko mesotelioma	
	Biriketako neoplasia	
	Beste neoplasia batzuk	
Berrikuspenaren maiztasun arautua		

VII.- LANPOSTUZ ALDATZEA

BAI

EZ

Laneko medikuak aginduta

Erradiodiagnostikoko eta/edo anatomia patologikoko txostenen kopia bidaliko da, halakorik balego.

X.- EBALUAZIOA NORK EGIN DUEN:

Prebentzio-zerbitzu propioa	Kanpoko prebentzio-zerbitzua (zehaztu):
Hospitala	Erabilitako protokoloa, osasun-administrazioek erabiltutakoaz bestelakoa izan bada:

(e)n, (e)ko (a)ren (e)an

an agintaritzaren sinadura eta zigilua

inadura eta zigilua

Inprimaki honetan emandako datuak fitxategi automatizatu batean sartuko dira, eta legez dagokien babes-mailarekin tratatuko dira. Erabiltzaileak datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango ditu, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 11.1 artikuluan aipatzen den moduan. Fitxategiaren arduradunaren datuak honako hauek izango dira: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila (helbidea: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba).